BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA XII. AGINTALDIA

Serie A **Iniciativas Normativas** | **Araugintza ekimenak** **A Saila**

IX **Proyecto de Norma Foral** | **Foru Arauaren Proiektua** **IX**

Bilbo, 2026ko irailaren 16a
Número 16a Bilbao, 16 de septiembre de 2026 16a alea

ASUNTO: Proyecto de Norma Foral de medidas tributarias 2026

AUTOR: Diputación Foral de Bizkaia

Admisión a trámite

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 15 de septiembre de 2026, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a trámite.
Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor
Órgano Destino de Tramitación: Hacienda y Finanzas
Procedimiento de Tramitación: Normal
Plazos:
Análisis de la Iniciativa por los Grupos Junteros y Comparecencias de la Diputación: 10 días. **Finaliza el 30 de septiembre**
Presentación de alegaciones por la ciudadanía: 10 días. **Finaliza el 30 de septiembre**
Emisión del dictamen (45 días)
Otros acuerdos
Encomendar elaborar el dictamen correspondiente
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado de la Iniciativa al Parlamento Vasco y al Gobierno Vasco
Ordenar traslado a los grupos junteros para proceder a su análisis
Ordenar publicación en la página web de la Juntas Generales
Ordenar apertura de plazo para formular alegaciones por la ciudadanía
Regulaciones:
Reglamento: Artículo 115 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 15 de septiembre de 2026.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

GAIA: Foru Arauaren Proiektua, 2026ko tributu-neurriei buruzkoa

EGILEA: Bizkaiko Foru Aldundia

Izapidetzeko onartzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2026ko irailaren 15ean izandako bileran:

Izapidea: Izapidetzeko onartzea
Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Organo hartzailea: Ogasun eta Finantza Batzordea
Prozedurea: Arrunta
Epea:
Batzarkide-Taldeek ekimena aztertzeko eta Aldundia batzorderatzeko: 10 egun. **Amaierea: irailaren 30ean**
Herritarrek iradokizunak aurkezteko: 10 egun. **Amaierea: irailaren 30ean**
Batzordeak Erizpena emoteko (45 egun)
Beste erabagi batzuk
Erespena egin daitela agintzea
BBNAn argitaratzeko agintzea
Ekimena Eusko Legebiltzarrera eta Eusko Jaurlaritzara bialtzeko agintzea
Batzarkide-taldeei igorteko agintzea, aztertu dagien

Batzar Nagusien web-gunean argitaratzeko eskatzea
Herritarrek alegazinoak aurkezteko epea edegi daitela agintzea

Araudi oinarria:
Araudia: 115. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2026ko irailaren 15ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

PROYECTO DE NORMA FORAL de medidas tributarias 2026.

El Territorio Histórico de Bizkaia ha construido a lo largo del tiempo un modelo económico y social caracterizado por una estrecha vinculación entre la actividad empresarial y el territorio. Este vínculo, denominado arraigo empresarial, constituye un elemento esencial para la generación de riqueza sostenible, la estabilidad del empleo y la cohesión social. Las empresas arraigadas no solo desarrollan su actividad económica en Bizkaia, sino que mantienen en el territorio una parte significativa de sus capacidades estratégicas, de sus decisiones relevantes y de su contribución al desarrollo económico y social. Esto puede expresarse de formas diversas: localización efectiva de funciones de dirección, inversión sostenida en activos productivos y tecnológicos, integración en cadenas de valor locales, generación de empleo cualificado, colaboración con proveedores, centros tecnológicos y universidades, compromiso con el desarrollo profesional, participación en ecosistemas sectoriales y conexión estable con el entorno institucional y social.

En un contexto global marcado por la creciente movilidad del capital, la competencia internacional y los procesos de deslocalización productiva, el fortalecimiento del arraigo empresarial se configura como un objetivo estratégico para las instituciones públicas. La preservación de este vínculo entre empresa y territorio resulta determinante para garantizar la resiliencia del tejido productivo y la capacidad de Bizkaia para afrontar los desafíos económicos, tecnológicos y sociales del siglo XXI.

Es por ello, por lo que se aconseja desde el punto de vista fiscal fomentar la permanencia en Bizkaia de las actividades empresariales estratégicas y de los centros de decisión, impulsar el relevo generacional y la continuidad empresarial, evitando la desaparición o deslocalización de empresas viables, así como favorecer modelos de gobernanza empresarial que refuercen el compromiso con el territorio, todo ello con pleno respeto a la normativa comunitaria sobre la materia.

Por otra parte, incidir en que el Territorio Histórico de Bizkaia ha mantenido históricamente un fuerte vínculo entre sus habitantes y el entorno en el que desarrollan sus proyectos de vida. Este vínculo, entendido como arraigo de las personas, constituye también un elemento esencial para la cohesión social, el equilibrio territorial y la sostenibilidad económica y demográfica.

El arraigo de las personas no responde únicamente a factores culturales o de identidad, sino que está estrechamente vinculado a condiciones materiales que facilitan el desarrollo de un proyecto vital en el territorio. Entre estos factores destacan el acceso a un empleo de calidad, la disponibilidad de vivienda, la conciliación de la vida personal y laboral, así como la existencia de oportunidades de desarrollo profesional y personal.

Bizkaia afronta retos estructurales que inciden directamente en el arraigo de las personas, tales como el envejecimiento de la población, la salida de jóvenes hacia otros territorios en busca de mejores oportunidades, o las dificultades de acceso a la vivienda para determinados colectivos. Asimismo, resulta necesario asegurar una adecuada integración de las personas que llegan al territorio en busca de nuevas oportunidades o mejores condiciones de vida.

Ante estos desafíos, se considera necesario articular medidas que incentiven la residencia efectiva y continuada en Bizkaia de personas cualificadas, especialmente jóvenes, que aporten con su trabajo al desarrollo del territorio. Adicionalmente, resulta imprescindible tener en cuenta que el tejido productivo de Bizkaia esta caracterizado por una destacada presencia de sectores industriales, tecnológicos y de servicios avanzados, en los que la cualificación técnica desempeña un papel esencial. En este contexto, la formación profesional se configura como un pilar estratégico para el desarrollo económico del territorio, al proporcionar perfiles altamente especializados y adaptados a las necesidades reales del mercado laboral.

La contratación de personas formadas en el sistema de formación profesional de Bizkaia constituye igualmente un factor clave para el fortalecimiento del arraigo de la población en el territorio. Al facilitar oportunidades de empleo acordes a la cualificación adquirida, se promueve la permanencia de las personas, especialmente de la juventud, evitando su desplazamiento a otros territorios por razones laborales.

FORU ARAUAREN PROIEKTUA, 2026ko tributu-neurriei buruzkoa.

Bizkaiko Lurralde Historikoak enpresa-jardueraren eta lurraldearen arteko lotura estua ardatz duen eredu ekonomiko eta sozial bat eraiki du denboran zehar. Lotura hori —errotze enpresariala esaten zaio— funtsezko elementua da aberastasun jasangarria, enpleguaren egonkortasuna eta gizarte-kohesioa sortzeko. Errotuta dauden enpresek, jarduera ekonomikoa Bizkaian gauzatzeaz gainera, lurraldean mantentzen dute beren gaitasun estrategikoen, erabaki garrantzitsuen eta garapen ekonomiko eta sozialari egiten dioten ekarpenaren zati handi bat. Inguruabar hori hainbat modutan adieraz daiteke: zuzendaritza-funtzioak benetan lurraldean kokatzea; inbertsio iraunkorra egitea aktibo produktibo eta teknologikoetan; tokiko balio-kateetan integratzea; enplegu kualifikatua sortzea; hornitzaileekin, zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzea; garapen profesionalarekiko konpromisoa hartzea; ekosistema sektorialetan parte hartzea eta lotura egonkorra izatea ingurune instituzional eta sozialarekin.

Kapitalaren mugikortasun gero eta handiagoak, nazioarteko lehiak eta ekoizpena deslokalizatzeko prozesuek markatutako testuinguru global honetan, errotze enpresariala indartzea helburu estrategikoa da erakunde publikoentzat. Enpresaren eta lurraldearen arteko lotura horri eustea erabakigarria da ekoizpen-sarearen erresilientzia eta Bizkaiak XXI. mendeko erronka ekonomiko, teknologiko eta sozialei aurre egiteko duen gaitasuna bermatzeko.

Horregatik, ikuspegi fiskaletik, komeni da enpresa-jarduera estrategikoak eta erabakiguneak Bizkaian geratzea sustatzea, belaunaldien arteko erreleboa eta enpresen jarraipena bultzatzea, eta, ildo horretan, enpresa bideragarrien desagerpena edo deslokalizazioa saihestea. Halaber, komeni da lurraldearekiko konpromisoa indartzen duten enpresa-gobernantzako ereduak bultzatzea. Betiere, arlo horretan Europar Batasunak emandako araudia erabat errespetatuta.

Bestalde, azpimarratu behar da Bizkaiko Lurralde Historikoan lotura sendoa mantendu dela, historikoki, biztanleen eta haien bizi-proiektuak garatzen dituzten ingurunearen artean. Lotura hori, pertsonen errotze gisa ulertuta, funtsezko elementua da gizarte-kohesiorako, lurralde-orekarako eta jasangarritasun ekonomiko eta demografikorako.

Pertsonen errotze hori ez da soilik faktore kulturalen edo identitate-faktoreen ondorio; lotura estua du lurraldean bizi-proiektu bat garatzeko aukera ematen duten baldintza materialekin ere. Faktore horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: kalitatezko enplegua lortzea, etxebizitza izatea, bizitza pertsonala eta lana uztartzea eta garapen profesional eta pertsonalerako aukerak izatea.

Bizkaiak aurre egin behar die pertsonen errotzean zuzenean eragiten duten egiturazko erronkei: biztanleriaren zahartzea, gazteak beste lurralde batzuetara joatea aukera hobeen bila edo kolektibo jakin batzuek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak, besteak beste. Era berean, beharrezkoa da lurraldera aukera berrien edo bizi-baldintza hobeen bila iristen diren pertsonak ondo integratzen direla ziurtatzea.

Erronka horien aurrean, beharrezkotzat jotzen da neurriak lantzea pertsona kualifikatuak, batez ere gazteak, benetan eta jarraian Bizkaian bizi daitezen, haien lanarekin ekarpena egin diezaioten lurraldearen garapenari. Horrez gainera, ezinbestekoa da kontuan hartzea Bizkaiko ekoizpen-sarearen ezaugarria dela industriaren, teknologiaren eta zerbitzu aurreratuen sektoreen presentzia nabarmena, eta sektore horietan funtsezko zeregina betetzen duela kualifikazio teknikoak. Testuinguru horretan, lanbide-heziketa zutabe estrategikoa da lurraldearen garapen ekonomikorako, profil oso espezializatuak eta lan-merkatuaren benetako beharretara egokituta daudenak ematen baititu.

Bizkaiko lanbide-heziketako sisteman prestatutako pertsonak kontratatzea ere funtsezko faktorea da biztanleek lurraldean duten errotzea indartzeko. Lortutako kualifikazioarekin bat datozen enplegu-aukerak eskaintzen badira, pertsonak, bereziki gazteak, hemen geratzea sustatzen da, eta lana dela-eta beste lurralde batzuetara joatea ekiditen da.

En este contexto, la presente Norma Foral pone el foco en garantizar la continuidad de la actividad del tejido empresarial de Bizkaia y en las personas trabajadoras que, con el desempeño de su trabajo, contribuyen a su solidez.

Con estas finalidades, se introducen modificaciones que tienen por objeto principal la incorporación en la normativa fiscal del Territorio Histórico de una reformulación de algunos de los tratamientos tributarios vigentes, que se completan con otros tratamientos novedosos. Por un lado, se amplía a nuevos supuestos la fiscalidad aplicable a la transmisión de las empresas, incorporando mecanismos orientados a promover la continuidad de la actividad empresarial y garantizar el empleo, con la finalidad de reforzar el arraigo empresarial. También se reformula la regulación fiscal relativa a la atracción de profesionales cualificados que resultan pieza clave para el desarrollo del tejido empresarial del Territorio Histórico de Bizkaia.

Por otro lado, la Norma Foral aborda la mejora de ciertos aspectos de la fiscalidad vinculada al trabajo por cuenta ajena. A estos efectos, se mejora el régimen fiscal de retribuciones en especie de las personas trabajadoras, con el fin de adecuarlo a las medidas que las empresas les ofrecen para mejorar sus condiciones laborales, poniendo el acento en el fomento de su bienestar físico y mental, así como en el fortalecimiento del vínculo entre las personas empleadas y la entidad para la que trabajan. Este vínculo se pretende reforzar, además, mediante el establecimiento de un tratamiento fiscal diferenciado para los complementos de permanencia y productividad satisfechos por las empresas a sus trabajadores y trabajadoras.

En otro orden de cosas, la Norma Foral introduce un novedoso tratamiento fiscal incentivador de instrumentos de colaboración público-privada que nacen con la finalidad de ofrecer soluciones al reto del acceso a la vivienda mediante fórmulas de arrendamiento con un marcado componente social. Finalmente, esta Norma Foral incorpora diversas modificaciones de carácter técnico en la vigente regulación tributaria.

Para dar cumplimiento a todo ello, la presente Norma Foral tiene por objeto la modificación de las siguientes Normas Forales: Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio, Norma Foral 6/2025, de 12 de diciembre, por la que se establece un impuesto complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud y se modifican la Norma Foral del impuesto sobre sociedades y la Norma Foral del impuesto sobre la renta de las personas físicas, Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, Norma Foral 6/2018, de 12 de diciembre, sobre régimen fiscal de cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia, Norma Foral 4/2019, de 20 de marzo, de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo, Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, por la que se caracterizan a efectos tributarios determinados fondos de inversión a largo plazo europeos y se introducen modificaciones en las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Patrimonio, del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y del Régimen fiscal de Cooperativas, así como en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Egoera hori kontuan hartuta, foru-arau honek Bizkaiko enpresa-sarearen jardueraren jarraitutasuna bermatzea du ardatz, bai eta haien lanaren bidez sare hori sendotzen laguntzen duten langileena ere.

Helburu hauekin lortzeko, zenbait aldaketa egin dira, eta haien helburu nagusia da indarrean dauden tributu-tratamendu batzuen birformulazioa sartzea lurralde historikoko zerga-araudian, eta, aldi berean, beste tratamendu berritzaile batzuekin osatzea. Alde batetik, kasu berrietara zabaldu da enpresen eskualdaketari aplikatu beharreko fiskalitatea, eta enpresa-jardueraren jarraitutasuna sustatzera eta enplegua bermatzera bideratutako mekanismoak txertatu dira, enpresen errotzea indartzeko. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-sarea garatzeko funtsezko pieza diren profesional kualifikatuak erakartzeko zerga-araudia birformulatu da.

Bestalde, besteren konturako lanari lotutako fiskalitatearen zenbait alderdi hobetzen ditu foru-arauak. Ildo horretan, hobetu egin da langileen gauzazko ordainsarien zerga-araubidea, enpresek haien lan-baldintzak hobetzeko eskaintzen dizkieten neurrien arabera egokitzeko, eta langileen ongizate fisikoa eta mentala sustatu behar dela eta enplegatuen eta enplegatuta dituen entitatearen arteko lotura indartu behar dela nabarmentzen da. Lotura hori, gainera, enpresek langileei ordaintzen dizkieten iraunkortasun- eta produktibitate-osagarrietarako tratamendu fiskal bereizia ezarriz indartu nahi da.

Beste alde batetik, foru-arauak tratamendu fiskal berritzaile bat sartzen du, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza-tresnak sustatzeko. Tresna horien helburua da etxebizitza eskuratzeko erronkari irtenbideak ematea, osagai sozial nabarmena duten errentamendu-formulen bidez. Azkenik, foru-arauak hainbat aldaketa tekniko egin ditu indarrean dagoen tributu-araudian.

Hori guztia betetzeko, foru-arau honen xedea da foru arau hauek aldatzea: 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa; 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa; 2/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa; 6/2025 Foru Araua, abenduaren 12koa, zeinaren bidez, batetik, talde multinazionalei eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen baita, eta, bestetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru-araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-araua aldatzen baitira; 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa; 6/2018 Foru Araua, abenduaren 12koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzkoa; 4/2019 Foru Araua, abenduaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa; 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, eta 2/2018 Foru Araua, martxoaren 21ekoa, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen baitira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten baitira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena.

Entre las modificaciones introducidas en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cabe mencionar la que afecta al régimen especial para trabajadores y trabajadoras desplazadas del extranjero a Bizkaia, cuya actual regulación fue introducida en la normativa del impuesto para el ejercicio 2018 por medio de la Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, y modificada en algunos aspectos en el año 2022. La nueva regulación simplifica y flexibiliza la aplicación del tratamiento fiscal, ajustándose la duración del régimen, que pasa a ser de 8 años en total frente a los 11 años anteriores, en línea con las regulaciones de otros sistemas tributarios europeos. Así, tratándose de personas trabajadoras desplazadas con contrato de trabajo, se amplía el ámbito de aplicación subjetivo del régimen, a la vista de la escasez de perfiles técnicos especializados en la oferta laboral, con la eliminación de su circunscripción a ciertas áreas de actividad y la exigencia de cualificación mínima de Formación Profesional de Grado Superior relacionada con el trabajo a desarrollar.

Adicionalmente, se simplifica la aplicación del régimen eliminando la deducción del 20 por 100 correspondiente a los gastos deducibles con justificación, que podía llegar a constituir un elemento disuasorio por dificultar el cálculo del incentivo, aumentado, en su lugar, el porcentaje de la exención aplicable sobre los rendimientos percibidos, que pasa del 30 al 50 por ciento. Además, en coherencia con el espíritu general del impuesto, se eleva el incentivo para las y los contribuyentes menores de 36 años y se reduce el periodo de permanencia previo en el extranjero de 5 a 3 años. La experiencia de estos años en la aplicación del régimen ha puesto de manifiesto las dificultades añadidas con las que se encuentran los y las contribuyentes que se desplazan con su unidad familiar. A fin de paliarlas, se posibilita su aplicación al resto de miembros de la unidad familiar bajo ciertas circunstancias.

Por último, se establece un régimen transitorio que posibilita que aquellos y aquellas contribuyentes que cumplieran los requisitos para aplicar el régimen en su redacción anterior pero también para acogerse a la nueva modalidad, puedan optar entre uno u otro, habilitando, asimismo, que contribuyentes que se hayan desplazado con anterioridad a la entrada en vigor del nuevo régimen y que cumplan los requisitos para su aplicación puedan hacerlo durante los periodos impositivos que resten hasta que finalicen los 7 periodos impositivos siguientes al ejercicio de cambio de residencia.

A continuación, igualmente con la pretensión de facilitar el establecimiento en Bizkaia de personas trabajadoras y con el objetivo de compensar los gastos adicionales causados por el traslado de residencia motivado por la actividad laboral, se introduce un nuevo concepto de gasto por movilidad geográfica deducible del rendimiento neto de trabajo personal. Para su aplicación será necesario que la persona contribuyente mantenga su residencia fiscal en Bizkaia durante los 3 ejercicios posteriores al del desplazamiento y tener una cualificación mínima de Formación Profesional de Grado Superior. El importe del gasto deducible será de 2.000 euros excepto cuando se trate de menores de 36 años, en cuyo caso la cifra se eleva a los 3.000 euros.

Cabe entrelazar estas medidas, en las que los estudios de Formación Profesional son la puerta de entrada principal para su aplicación, con la introducción de una nueva modalidad de deducción en el Impuesto sobre Sociedades relacionada con los gastos de formación de personal. Esta medida amplía el ámbito de aplicación de la deducción a la formación dirigida, en general, a la actualización, capacitación o reciclaje del personal, dejando por lo tanto de estar limitada al campo de la economía plateada y de la economía del cuidado. Adicionalmente, como novedad, se incluye la posibilidad de deducir un 20 por ciento de los gastos salariales correspondientes cuando los y las contribuyentes formalicen contratos vinculados a programas de Formación Dual, tanto profesional como universitaria.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan sartutako aldaketen artean, atzerritik Bizkaira lekualdatutako langileentzako araubide bereziari eragiten diona nabarmendu behar da. Araubide horri gaur egun aplikatzen zaizkion arauak martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren bidez sartu ziren zergaren araudian, 2018ko ekitaldirako, eta zenbait alderdi aldatu ziren 2022an. Araudi berriak sinplifikatu eta malgutu egiten du tratamendu fiskalaren aplikazioa, eta araubidearen iraupena doitzen da: lehenagoko 11 urteko iraupenetik 8 urtekora izatera pasatu da, Europako beste tributu-sistema batzuen araudiekin bat etorrita. Hala, lekualdatutako langileek lan-kontratua duten kasuan, zabaldu egin da araubidearen aplikazio-eremu subjektiboa, lan-eskaintzan profil tekniko espezializatu gutxi daudelako. Beraz, orain ez da egongo jarduera-arlo jakin batzuetara mugatuta eta kendu egin da garatu beharreko lanarekin lotutako Goi-mailako Lanbide Heziketako gutxieneko kualifikazioari dagokion eskakizuna.

Horrez gain, araubidearen aplikazioa sinplifikatu da: kendu egin da justifikatutako gastu kengarriei dagokien % 20ko kenkaria, disuasio-elementua izan baitzitekeen pizgarriaren kalkulua zailtzen zuelako, eta, kenkari horren ordez, jasotako etekinen gainean aplikatu ahal den salbuespenaren ehunekoa handitu da, % 30etik % 50era. Bestalde, zergaren espiritu orokorrarekin bat etorrita, 36 urtetik beherako zergadunentzako pizgarria handitu da, eta atzerrian aurretiaz egindako egonaldiaren iraupena 5 urtetik 3 urtera murriztu da. Araubidearen aplikazioan urte hauetan izandako esperientziak agerian utzi ditu familia-unitatearekin lekualdatzen diren zergadunek dituzten zailtasun gehigarriak. Zailtasun horiek arintzeko, araubidea familia-unitateko gainerako kideei aplikatzeko aukera ematen da, egoera jakin batzuetan.

Azkenik, araubide iragankor bat ezartzen da, eta, haren ondorioz, aurreko idazketan araubidea aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen zituzten eta modalitate berriari heltzeko baldintzak ere betetzen dituzten zergadunek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute. Era berean, araubide berria indarrean jarri aurretik lekuz aldatu diren eta hura aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten zergadunek araubide berria aplikatu ahal izango dute egoitza aldatu zuten ekitaldiaren ondorengo 7 zergaldiak amaitu arte geratzen diren zergaldietan.

Jarraian, langileak Bizkaian ezartzea errazteko asmoz, eta lan-jarduerak eragindako bizileku-aldaketak eragindako gastu gehigarriak konpentsatzeko, mugigarritasun geografikoari lotutako gastu-kontzeptu berri bat sartu da, eta lan pertsonalaren etekin garbitik kendu ahal izango da. Kenkari hori aplikatzeko, zergadunak Bizkaian izan beharko du zerga-egoitza lekualdatzearen ondorengo 3 ekitaldietan, eta Goi-mailako Lanbide Heziketako gutxieneko kualifikazioa izan beharko du. Gastu kengarriaren zenbatekoa 2.000 euro izango da, 36 urtetik beherakoen kasuan izan ezik, kasu horretan zenbateko 3.000 euro izango baita.

Neurri horiek, zeinetan Lanbide Heziketako ikasketak sarbide nagusia baitira neurriok aplikatu ahal izateko, Sozietateen gaineko Zergan langileen prestakuntza-gastuekin lotuta sartu den kenkari-modalitate berri batekin uztartu ahal dira. Neurri horren bidez, kenkariaren aplikazio-eremuan sartu da langileen eguneratzera, trebatzera edo birziklatzera bideratutako prestakuntza oro, eta, beraz, zilarrezko ekonomiaren eta zaintzaren ekonomiaren eremura mugatuta egoteari utzi dio. Horrez gain, berrikuntza gisa, dagozkion soldata-gastuetatik % 20 kentzeko aukera sartu da, zergadunek prestakuntza dualeko programei lotutako kontratuak formalizatzen dituztenean, bai lanbide-heziketakoak, bai unibertsitatekoak.

Siguiendo con las medidas encaminadas a fortalecer el arraigo introducidas en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y a impulsar una contribución adicional por parte de las personas trabajadoras a la actividad económica, se establecen dos nuevos tratamientos encaminados a incentivar la permanencia y el compromiso con la empresa en la que prestan sus servicios las personas trabajadoras. Así, los complementos salariales por permanencia y por productividad pasan a tributar como renta del ahorro, con ciertos límites, cuando se cumplan una serie de circunstancias. El mencionado complemento por permanencia podrá generarse con una periodicidad de tres años y el complemento de productividad contará con un límite más elevado cuando las que lo generen sean mujeres. En el caso de ambos tipos de retribuciones, la incentivación se mejora sustancialmente cuando la persona trabajadora tenga menos de 36 años, ya que, en este supuesto, será objeto de integración un 80 por 100 del complemento percibido.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errotzea indartzeko eta langileek jarduera ekonomikoari ekarpen gehigarria egitea sustatzeko sartutako neurriekin jarraituz, bi tratamendu berri ezarri dira, sustatzeko langileek zerbitzuak ematen dituzten enpresan geratzea eta harekin duten konpromisoari eustea. Hala, iraunkortasunari eta produktibitateri lotutako soldata-osagarriak aurrezpenaren errenta gisa tributatuko dute orain, muga batzuekin, inguruabar batzuk betetzen direnean. Iraunkortasun-osagarri hori hiru urtean behin sortu ahal izango da, eta produktibitate-osagarriak muga handiagoa izango du hura sortzen dutenak emakumeak direnean. Bi ordainsari horien kasuan, pizgarria nabarmen hobetu da langileak 36 urte baino gutxiago dituenean; izan ere, kasu horretan, jasotako osagarriaren % 80 integratuko da.

En cuanto a las deducciones, se introduce un nuevo Capítulo IV bis dentro del Título VII de la Norma Foral de Impuesto, dedicado a aquellas vinculadas al fomento del bienestar integral, físico y mental y a los hábitos de vida saludable, dentro del cual encontramos dos nuevos incentivos. Por un lado, se posibilita la deducción del 20 por 100, con un máximo de 300 euros, de la prima del seguro de asistencia sanitaria de cada persona asegurada. Esta deducción podrá ser aplicable asimismo respecto de las primas correspondientes a las personas que generen el derecho a aplicar la deducción del artículo 79 de la Norma Foral del Impuesto y se incompatibiliza su aplicación en caso de que, haciendo uso de la nueva opción disponible, se deduzca el gasto por el mismo concepto de la actividad económica.

Kenkariei dagokienez, IV bis kapitulu berria sartu da zergari buruzko foru arauaren VII. tituluan, ongizate integrala, fisiko eta mentalaren sustapenari eta bizi-ohitura osasungarriei lotutakoei buruzkoa. Kapitulu horren barruan, bi pizgarri berri ditugu. Alde batetik, % 20ko kenkaria aplikatu ahal izango da aseguratutako pertsona bakoitzaren osasun-laguntzako aseguruaren priman, gehienez 300 eurokoa. Zergari buruzko foru-arauaren 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duten pertsonei dagozkien primei ere aplikatu ahal izango zaie kenkari hori, eta bateraezina izango da aplikazioa, aukera erabilgarri berria baliatuz, gastua kentzen bada jarduera ekonomikoaren kontzeptu beragatik.

Por otro lado, con el fin de fomentar la vida saludable y coadyuvar en la prevención de enfermedades, a fomentar el ocio sano entre los jóvenes y a alcanzar una longevidad en óptimas condiciones, se introduce una deducción del 20 por ciento, con un máximo de 200 euros, sobre las cantidades satisfechas en el periodo impositivo para el desarrollo de actividades de ejercicio físico o práctica deportiva en gimnasios y centros deportivos. Estas deducciones contenidas en el nuevo Capítulo IV bis se correlacionan con dos de los nuevos supuestos incluidos dentro de los rendimientos de trabajo que no tendrán la consideración de renta en especie, que se aplicarán cuando sea el empleador o empleadora quién satisfaga las cuotas por los mismos conceptos.

Bestalde, bizitza osasungarria sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzen laguntzeko, gazteen artean aisialdi osasuntsua sustatzeko eta bizitza-luzera baldintza ezin hobeetan lortzeko, % 20ko kenkaria sartu da zergaldian zehar gimnasio eta kirol-zentroetan ariketa fisikoa edo kirol-jarduera egiteagatik ordaindutako kopuruetan aplikatzeko, gehienez 200 eurokoa. IV bis kapitulu berrian jasotako kenkari horiek lotuta daude lan-etekinen barruan sartutako bi kasu berrirekin. Kasu horiek ez dira gauzazko errentatzat hartuko, eta kontzeptu berberei dagozkien kuotak enplegatzaileak ordaintzen dituenean aplikatuko dira.

Las deducciones señaladas en los dos párrafos anteriores se complementan con el establecimiento de sendas obligaciones de información para las compañías aseguradoras y para los centros deportivos en los que se desarrollen las actividades deportivas.

Aurreko bi paragrafoetan adierazitako kenkariak osatzeko, informazio emateko betebehar bana ezarri zaie aseguru-etxeei eta kirol-jarduerak egiteko erabilitako kirol-zentroei.

Continuando con las rentas que no tienen la consideración de renta en especie para la persona trabajadora, a los supuestos ya mencionados, se suman la incorporación de nuevos supuestos que o bien mejoran la calidad de vida de las personas trabajadoras, o bien refuerzan su vínculo con la empresa.

Langilearentzako gauzazko errentatzat hartzen ez diren errentekin jarraituz, aipatutako kasuez gainera, langileen bizi-kalitatea hobetzen duten edo enpresarekin duten lotura indartzen duten kasu berriak sartu dira.

Para dar respuesta a la primera finalidad, se establece la no consideración de retribución en especie de las fórmulas indirectas de pago para la utilización de servicios de taxis o similares cuando, por motivo del horario laboral, no exista servicio público de transporte colectivo de viajeros disponible para el trayecto de que se trate, con un límite de 1.500 euros anuales por persona trabajadora.

Lehenengo xederako, ezarri da ez direla gauzazko ordainsaritzat hartuko taxi-zerbitzuak edo antzekoak erabiltzeko zeharkako ordainketa-formulak, baldin eta, lan-ordutegia dela-eta, bidaiarien garraio kolektiboko zerbitzu publikorik ez badago kasuan kasuko ibilbiderako. Langile bakoitzeko 1.500 euroko muga ezarri da, urtean.

El impulso al arraigo de las personas trabajadoras con la empresa viene de la mano de la no consideración de renta en especie para la persona trabajadora de los intereses por debajo del interés legal del dinero que correspondan a préstamos concedidos con la finalidad de adquirir una participación en la entidad en la que presta servicios o de adquirir la condición de persona socia en una cooperativa, o de idéntica consideración para la entrega de acciones o participaciones de la empresa en la que presta servicios o de otras del mismo grupo, de forma gratuita o por precio inferior al normal de mercado, con el límite de 12.000 euros anuales por persona trabajadora.

Langileen enpresarekin errotzea sustatzeko, ez dira langilearentzako gauzazko errentatzat hartuko langileak zerbitzuak ematen dituen entitatean partaidetza bat eskuratzeko edo kooperatiba bateko bazkide izateko emandako maileguei dagokien diruaren legezko interesaren azpitik dauden interesak, ezta zerbitzuak ematen dituen enpresaren edo talde bereko beste enpresa batzuen akzioak edo partaidetzak edo doan edo merkatuko prezio normala baino prezio txikiagoan ematea ere. Langile bakoitzeko 12.000 euroko muga ezarri da, urtean.

Siguiendo con el fomento del arraigo, esta vez centrado en la actividad empresarial, se aborda el tratamiento fiscal de la transmisión de la empresa familiar. La empresa familiar constituye uno de los pilares de nuestro tejido empresarial, representando un alto porcentaje del total de las empresas y generando una parte significativa de la riqueza y del empleo del territorio. Su relevancia económica y social llevó hace más de tres décadas a la Comisión Europea a impulsar un tratamiento fiscal orientado a favorecer su continuidad, estabilidad y transmisión intergeneracional con la aprobación en diciembre de 1994, de una Recomendación sobre la transmisión de pequeñas y medianas empresas. Siguiendo sus directrices, se encuentra vigente desde entonces un tratamiento fiscal especifico en el sistema tributario de Bizkaia que pivota sobre la exención aplicable a las ganancias patrimoniales producidas por la transmisión de la empresa familiar en el IRPF, cuando se cumplen una serie de requisitos y los y las adquirentes son o bien personas del grupo familiar, o bien trabajadores y trabajadoras. Con posterioridad, en 2015, el Parlamento Europeo mediante la Resolución del Parlamento Europeo, de 8 de septiembre de 2015, sobre las empresas familiares en Europa, profundiza en la necesaria protección de la continuidad de la empresa familiar por el valor añadido que supone para la economía comunitaria.

Halaber, errotzea sustatzeko, oraingoan enpresa-jarduera ardatz hartuta, familia-enpresaren eskualdaketaren tratamendu fiskalari heldu zaio. Familia-enpresa gure enpresa-sarearen zutabeetako bat da; enpresa guztien ehuneko handi bat hartzen du eta lurraldeko aberastasunaren eta enpleguaren zati handi bat sortzen du. Haren garrantzi ekonomiko eta sozialak eraginda, duela hiru hamarkada baino gehiago, Europako Batzordeak tratamendu fiskal bat bultzatu zuen halako enpresen jarraipena, egonkortasuna eta belaunaldien arteko transmisioa errazteko. Izan ere, 1994ko abenduan, enpresa txiki eta ertainen transmisioari buruzko gomendio bat onartu zen. Haren jarraibideei jarraituz, orduz geroztik indarrean dago Bizkaiko zerga-sisteman berariazko zerga-tratamendu bat, familia-enpresaren eskualdaketak PFEZn eragindako ondare-irabaziei aplikatu beharreko salbuespenaren gainean oinarritzen dena, baldintza batzuk betetzen direnean eta eskuratzaileak familia-taldeko pertsonak edo langileak direnean. Geroago, 2015ean, Europako Parlamentuak, Europako familia-enpresei buruzko Europako Parlamentuaren 2015eko irailaren 8ko Ebazpenaren bidez, sakondu egin zuen familia-enpresaren jarraitutasuna babesteko beharra, Erkidegoko ekonomiarentzat duen balio erantsiagatik.

La presente Norma Foral amplía los supuestos para su aplicación, que pasa a incluir las transmisiones de carácter oneroso cuando el adquirente sea un familiar de hasta cuarto grado y facilita la adquisición al personal directivo cuando la transmisión se realice a favor de las personas trabajadoras. Adicionalmente, se reformula el régimen de incumplimiento, incluyendo el supuesto de que la persona transmitente no dejara de ejercer funciones de dirección en el plazo de los dos años posteriores a la trasmisión y se incluye igualmente la obligación de ingresar las cantidades correspondientes a la ganancia patrimonial no gravada, junto con un recargo, en caso de que la Administración tributaria compruebe que el importe efectivamente satisfecho en la transmisión es distinto al declarado por la persona contribuyente. En cuanto a la persona adquirente, el incumplimiento del requisito de mantenimiento de la actividad se ve, asimismo. penalizado mediante un recargo.

Foru-arau honek kasu gehiago ezarri ditu, eta kostu bidezko transmisioak sartzen ditu eskuratzailea laugarren mailarainoko senidea denean, eta zuzendaritzako langileei eskuratzen laguntzen die transmisioa langileen alde egiten denean. Horrez gain, ez-betetzearen araubidea birformulatzen da, eta bertan sartzen da eskualdatzaileak eskualdaketa egin eta hurrengo bi urteetan zuzendaritza-eginkizunak betetzeari uzten ez dion kasua, eta, halaber, jasotzen da zergapetu gabeko ondare-irabaziari dagozkion zenbatekoak ordaintzeko betebeharra, errekargu batekin batera, baldin eta zerga-administrazioak egiaztatzen badu eskualdaketan benetan ordaindutako zenbatekoa ez dela zergadunak aitortutakoa. Eskuratzaileari dagokionez, jarduerari eusteko baldintza ez betetzea errekargu baten bidez zigortzen da.

La Comisión Europea, en su Comunicación (2006) 117 final «Aplicar el Programa comunitario de Lisboa para el crecimiento y el empleo - Transmisión de empresas - Continuidad mediante la renovación», ánima a reforzar la fiscalidad que posibilite la continuidad de la actividad empresarial y a diseñar una fiscalidad favorable a las transmisiones a terceros, reconociendo que las medidas implementadas al amparo de la Recomendación de 1994, no son suficientes en un contexto de relevo generacional a nivel europeo.

Europako Batzordeak, 117 zenbakiko azken komunikazioan (2006), —«Hazkunderako eta enplegurako Lisboako Erkidegoko Programa aplikatzea - Enpresen eskualdaketa - Berrikuntzaren bidezko jarraitutasuna»)—, animatzen du enpresa-jardueraren jarraitutasuna ahalbidetzen duen fiskalitatea indartzera eta hirugarren batzuei eskualdatzeen aldeko fiskalitatea diseinatzera, eta aitortzen du 1994ko Gomendioaren babesean ezarritako neurriak ez direla nahikoak belaunaldien arteko errelebo-testuinguru batean Europa mailan.

Con esta finalidad, se incluye un supuesto de exención parcial para las personas físicas de un 30 por 100 de la plusvalía generada por la transmisión de negocios o participaciones en los mismos, siempre que se condicione al mantenimiento del empleo y a la continuidad de la actividad económica durante al menos 5 años. Complementariamente, si la transmisión se realiza mediante una entidad interpuesta que es la propietaria del negocio, se establece una reducción del 30 por 100 de la parte del dividendo que se corresponda con dicha plusvalía recibido por las personas físicas propietarias del mismo.

Helburu horrekin, negozioak edo negozioetako partaidetzak eskualdatzean sortutako gainbalioaren % 30eko salbuespen partziala ezartzen da pertsona fisikoentzat, betiere enpleguari eustearen eta jarduera ekonomikoak gutxienez 5 urtez jarraitzearen baldintzapean. Modu osagarrian, transmisioa negozioaren jabea den bitarteko erakunde baten bidez egiten bada, negozioaren jabe diren pertsona fisikoek jasotako gainbalio horri dagokion dibidenduaren zatiaren 100eko 30eko murrizketa ezartzen da.

Finalmente, este tratamiento se completa incluyendo, por un lado, una nueva bonificación en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones para los supuestos de transmisiones lucrativas a favor de personas trabajadoras equivalente a la ya existente para el caso de familiares de hasta cuarto grado, incluyendo además para ambos supuestos una penalización, similar a la ya comentada en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para el transmitente, para el supuesto de que la persona adquirente incumpla los requisitos establecidos para aplicar la mencionada bonificación. Por otro lado, a fin de fomentar el mentoring en el relevo generacional, en el ámbito del Impuesto sobre el Patrimonio, se añade que la exención del apartado Dos del artículo 6 de la Norma Foral reguladora del tributo se mantendrá en todo caso durante el periodo de los dos años en los que se continue ejerciendo las funciones de dirección.

Azkenik, tratamendu hau osatzeko, alde batetik, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan hobari berri bat sartu da langileen aldeko kostu gabeko eskualdaketak egiten direnerako, laugarren mailara arteko senideen kasurako dagoenaren baliokidea dena. Gainera, penalizazio bat sartu da bi kasuetarako (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eskualdatzailearentzat aipatutakoaren antzekoa), eskuratzaileak aipatutako hobaria aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu. Beste alde batetik, belaunaldien arteko erreleboan mentoringa sustatzeko, Ondarearen gaineko Zergaren eremuan, zerga arautzen duen Foru Arauaren 6. artikuluaren Bi ataleko salbuespena beti mantenduko da zuzendaritza-eginkizunak betetzen jarraitzen den bi urteko aldian.

En otro orden de cosas, de manera complementaria a la revisión fiscal acometida en el año 2025 que abordó el reto de la vivienda desde la perspectiva de satisfacer el derecho a la misma con vocación de permanencia, la presente Norma Foral aborda el problema estructural de la vivienda desde un enfoque social, centrándose en la necesaria satisfacción de ese derecho con carácter transitorio para lo que se establece un mecanismo de colaboración público-privada, con una participación predominante del tercer sector social, que pivota sobre un concepto fiscal de nuevo cuño, el arrendamiento de vivienda de interés social.

Bestalde, etxebizitzaren erronkari etxebizitzarako eskubidea iraunkortasunez betetzeko ikuspegitik heldu zion 2025eko zerga-berrikuspenaren osagarri gisa, foru-arau honek ikuspegi sozialetik helduko dio etxebizitzaren egiturazko arazoari, eta eskubide hori aldi baterako betetzeko premian zentratuko da. Horretarako, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako mekanismo bat ezarri da, zeinean partaidetza nagusia baitu gizarte hirugarren sektoreak. Mekanismo horrek kontzeptu fiskal berri bat du oinarri: etxebizitzen interes sozialeko errentamendua.

El nuevo régimen fiscal se va a articular mediante el vehículo del fondo de inversión a largo plazo europeo regulado en el Reglamento (UE) 2015/760, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2015, sobre los fondos de inversión a largo plazo europeos. La caracterización de estos fondos, cuyo régimen tributario se halla contenido en el artículo 80 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, se encuentra regulada en el Título I de la Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, por la que se caracterizan a efectos tributarios determinados fondos de inversión a largo plazo europeos y se introducen modificaciones en las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Patrimonio, del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y del Régimen fiscal de Cooperativas, así como en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. En consecuencia, se introduce en esta Norma Foral un nuevo artículo 6.bis, con el objeto de establecer los requisitos que deben de cumplir los nuevos Fondos denominados Fondos europeos para el impulso del arrendamiento de vivienda de interés social.

Araubide berriak Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduan araututako Europako epe luzerako inbertsio-funtsa izango du ardatz. Funts horien tributu-araubidea Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 80. artikuluan dago jasota, eta haien ezaugarriak martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren I. tituluan xedatzen dira. Foru-arau horren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena. Hori dela eta, foru-arau horretan 6 bis artikulu berria sartu da, etxebizitzen interes sozialeko errentamendua sustatzeko Europako funtsak izeneko funts berriek bete behar dituzten baldintzak ezartzeko.

Así, el objeto del Fondo deberá ser únicamente la adquisición, rehabilitación o promoción de activos no corrientes consistentes en viviendas y sus elementos accesorios destinadas exclusivamente al arrendamiento de vivienda de interés social, considerándose alquiler de vivienda de interés social el arrendamiento o subarrendamiento de viviendas o la constitución o cesión de derechos o facultades de uso o disfrute sobre las mismas, cualquiera que sea su denominación o naturaleza, de carácter temporal y rotatorio, a personas con dificultades documentadas de acceso a una vivienda en condiciones de mercado, por razón de ingresos, edad, situación de movilidad formativa o laboral, dependencia, discapacidad, vulnerabilidad económica, riesgo de exclusión residencial, procesos de emancipación o inclusión socio-residencial, entre otras circunstancias. Asimismo, la actividad tendrá por finalidad única la de satisfacer el derecho de las personas arrendatarias o subarrendatarias a una vivienda digna y deberá incorporar actuaciones de gestión social del alojamiento no entendiéndose comprendidas, en ningún caso, otras finalidades, tales como la turística, vacacional o de mera explotación inmobiliaria de mercado. En todo caso, la actividad de arrendamiento de vivienda de interés social tendrá la consideración de actividad económica siempre que las entidades que la desarrollan dispongan, por sí mismas o a través de las entidades del tercer sector con las que mantengan contrato estable de prestación de servicios de acompañamiento social y gestión, de una plantilla agregada de al menos cinco personas trabajadoras empleadas por cuenta ajena a jornada completa y con dedicación exclusiva a dicha actividad.

Hala, funtsaren xede bakarra izango da aktibo ez-korronteak eskuratzea, birgaitzea edo sustatzea. Aktibo horiek izango dira etxebizitzen errentamendurako baino ez diren etxebizitzak eta haien elementu osagarriak. Etxebizitzen interes sozialeko alokairutzat hartuko da etxebizitzen errentamendua edo azpierrentamendua, edo etxebizitza horien gaineko erabilera- edo gozamen-eskubideen edo -ahalmenen eraketa edo lagapena, haien izena edo izaera edozein dela ere, jarduera hori aldi baterakoa eta txandakakoa bada, eta, besteak beste, diru-sarrerak, adina, prestakuntzaren edo lanaren ondoriozko mugikortasuna, mendekotasuna, desgaitasuna, kalteberatasun ekonomikoa, bizitegi-bazterketarako arriskua, emantzipazio-prozesuak edo gizarte- eta egoitza-inklusioko prozesuak direla-eta, etxebizitza bat merkatuko baldintzetan eskuratzeko zailtasun dokumentatuak dituzten pertsonak badira hartzaileak. Era beran, jardueraren xede bakarra izango da errentariek eta azpierrentariek etxebizitza duina izateko duten eskubidea gauzatzea, eta bizilekuaren kudeaketa sozialerako jarduketak jaso beharko ditu. Ez dira inola ere sartzen beste xede batzuk, hala nola turistikoa, oporretakoa edo merkatuko higiezinen ustiapen hutsa.. Edonola ere, etxebizitzen interes sozialeko errentamendu-jarduera jarduera ekonomikotzat hartuko da baldin eta jarduera hori garatzen duten entitateek gutxienez bost langileko plantilla agregatua badute, beren kabuz edo entitate horiekin laguntza sozialeko eta kudeaketako zerbitzuak emateko kontratu egonkorra duten hirugarren sektoreko entitateen bitartez. Langile horiek besteren kontura lanaldi osoan enplegatuta egon behar dute, eta dedikazio esklusiboa izan behar dute jarduera horretan.

Adicionalmente, y en cumplimiento de la normativa comunitaria sobre la materia, los activos no corrientes adquiridos por el fondo deben de tener, en su conjunto, la consideración de activos reales a los que se refiere la letra e) del artículo 10 del Reglamento (UE) 2015/760, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2015, sobre los fondos de inversión a largo plazo europeo. Los activos no corrientes adquiridos por el fondo deben afectarse por las entidades arrendatarias al desarrollo de la actividad económica de arrendamiento de vivienda de interés social definida por un plazo de duración mínimo de cinco años y el patrimonio del fondo debe de encontrarse garantizado en, al menos, un 5 por 100 de su importe, por una sociedad de garantía recíproca o mediante un seguro de caución.

Horrez gain, eta Europar Batasunak gaiari buruz emandako araudia betetzeko, funtsaren bidez eskuratutako aktibo ez-korronteak, multzoan hartuta, Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduko 10. artikuluaren e) letran aipatzen diren aktibo errealak izan behar dira. Horrez gainera, entitate errentariek foru-arauan definitzen den etxebizitzen interes sozialeko errentamendu-jarduera ekonomikoa garatzeko erabili behar dituzte funtsaren bidez eskuratutako aktibo ez-korronteak eta hala egin behar dute gutxienez bost urtez, eta funtsaren ondareak elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio-aseguru batez bermatuta egon behar du, bere zenbatekoaren % 5ean, gutxienez.

Como corolario de lo anterior y a fin de implicar a los pequeños ahorradores en la consecución de los fines pretendidos, se introduce en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas una nueva deducción, artículo 90.ter, del 15 por ciento de las cantidades que se depositen en entidades de crédito, en cuentas destinadas a la adquisición de participaciones en fondos europeos para el impulso del arrendamiento de vivienda de interés social que cumplan los requisitos previstos en el artículo 6 bis de la Norma Foral 2/2018 antes señalada, sin que la deducción pueda superar la cantidad de 750 euros anuales por cada persona contribuyente y debiendo mantenerse las cantidades depositadas durante un plazo de cinco años a contar desde la fecha de apertura del depósito.

Esandakoaren ondorio gisa, eta aurreztaile txikiak lortu nahi diren xedeen lorpenean inplikatzeko, kenkari berri bat sartu da Pertsonen Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan (90 ter artikulua); kreditu-erakundeetan, lehenago aipatutako 2/2018 Foru Arauaren 6 bis artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten etxebizitzen interes sozialeko errentamendua sustatzeko Europako funtsetan partaidetzak eskuratzeko diren kontuetan gordailutzen diren kopuruen % 15ekoa izango da kenkari hori, eta zergadun bakoitzak 750 euroko kenkaria aplikatu ahal izango du gehienez, urtean. Gordailututako kopuruek bost urtez egon beharko dute egoera horretan, gordailua zabaltzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Igualmente, y en coherencia con las medidas incentivadoras del arrendamiento de vivienda reguladas en la Norma Foral 2/2025, 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia, se establece como nuevo requisito para la aplicación del régimen de tributación previsto en el párrafo segundo del artículo 115 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, que el precio del alquiler de las viviendas que satisfacen la necesidad de vivienda con carácter permanente esté limitado a los importes que se correspondan con los índices de referencia o precios de intermediación pública.

Era berean, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauan araututako etxebizitzen errentamendua sustatzeko neurriekin bat etorrita, betekizun berri bat ezarri da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 115. artikuluaren bigarren apartatuan ezarritako tributazio-araubidea aplikatzeko: etxebizitza-premia iraunkorra betetzen duten etxebizitzen alokairuaren prezioaren muga erreferentzia-indizeei edo bitartekaritza publikoko prezioei dagozkien zenbatekoak izango dira.

Adicionalmente la presente Norma Foral recoge algunos cambios añadidos, actualizaciones y modificaciones de carácter técnico en aras de facilitar la correcta aplicación de la normativa vigente.

Horrez gain, foru-arau honek beste aldaketa batzuk, eguneratzeak eta aldaketa teknikoak jaso ditu indarrean dagoen araudia behar bezala aplikatzea errazteko.

En el ámbito del Impuesto sobre la Renta de las Personas físicas y en relación con las exenciones, se hace necesario dar una rápida respuesta tributaria al acuerdo alcanzado entre el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes, la Conferencia Episcopal Española y la Conferencia Española de Religiosos para el establecimiento de un sistema para reparar a las víctimas de abusos sexuales en el ámbito de la Iglesia Católica, que se materializó en el Protocolo General de Actuación firmado el 30 de marzo de 2026, para lograr el reconocimiento y la reparación integral de todas las víctimas, por lo que se declaran exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas las cantidades satisfechas por la Iglesia Católica a las víctimas de tales abusos, de acuerdo con los procedimientos referidos en el citado Protocolo. Asimismo, se declaran exentas las cantidades satisfechas por la Iglesia católica a las víctimas de abusos sexuales con arreglo a sus propios sistemas y planes de reparación.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren esparruan, eta salbuespenei dagokienez, beharrezkoa da tributuen arloan erantzun azkarra ematea Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetako Ministerioak, Espainiako Gotzainen Biltzarrak eta Erlijiosoen Espainiako Konferentziak Eliza Katolikoaren eremuan sexu-abusuen biktimei kalte-ordainak emateko sistema bat ezartzeko lortutako akordioari. 2026ko martxoaren 30eko Jarduteko Protokolo Orokorra ekarri zuen akordio horrek, biktima guztiak aitortzeko eta biktima guztien erreparazio integrala lortzeko. Hori dela eta, Eliza Katolikoak abusu horien biktimei ordaindutako zenbatekoak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi dira, protokolo horretan aipatutako prozedurekin bat etorrita. Era berean, salbuetsita egongo dira Eliza Katolikoak kalte-ordaina emateko bere sistemen eta planekin bat sexu-abusuen biktimei ordaindu dizkien zenbatekoak.

Además, se amplía este tratamiento fiscal a las indemnizaciones satisfechas por cualquier persona o entidad en virtud de resolución judicial en estos supuestos.

Gainera, tratamendu fiskal hori edozein pertsonak edo erakundek kasu horietan ebazpen judizialaren bidez ordaindutako kalte-ordainetara zabaltzen da.

Por otra parte, la implantación y fomento de los medios adecuados de solución de controversias regulados en la Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia exige también la adecuación de ciertos preceptos contenidos en la Norma Foral del Impuesto. De esta manera, se revisa la exención prevista para las indemnizaciones como consecuencia de responsabilidad civil por daños personales en la cuantía legal o judicialmente reconocida, con la finalidad de que pueda resultar aplicable cuando, sin fijarse su cuantía legal ni judicialmente, la indemnización sea satisfecha por la entidad aseguradora del causante de los daños físicos o psíquicos en cumplimiento de un acuerdo de mediación o de cualquier otro medio adecuado de solución de controversias legalmente previsto.

Bestalde, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoan gatazkak konpontzeko araututako bitarteko egokiak ezartzeko eta sustatzeko, egokitu egin behar dira zergaren foru-arauan jasotako zenbait manu. Hartara, berrikusi egin da kalte pertsonalengatiko erantzukizun zibilaren ondoriozko kalte-ordainetarako legez edo judizialki aitortutako zenbatekoan ezarritako salbuespena. Xedea da, kalte-ordainaren zenbatekoa legez edo judizialki finkatu gabe, kalte-ordaina kalte fisiko edo psikikoen kausatzailearen aseguru-entitateak ordaintzen duenean aplikatu ahal izatea salbuespen hori, bitartekaritza-akordio bat edo gatazkak konpontzeko legez ezarritako edozein bitarteko egoki betez.

Igualmente, se revisa el régimen fiscal establecido para las anualidades por alimentos percibidas de los padres con el objeto de eliminar cualquier duda sobre la aplicación del mismo a las anualidades fijadas en los convenios reguladores a que se refiere el artículo 90 del Código Civil formalizados ante el letrado o la letrada de la Administración de Justicia o en escritura pública ante notario o notaria, al tiempo que se recuerda que dicho convenio puede ser el resultado de cualquier medio adecuado de solución de controversias legalmente previsto.

Era berean, gurasoengandik jasotako mantenurako urterokoetarako ezarritako zerga-araubidea berrikusi da, Kode Zibilaren 90. artikuluan aipatzen diren hitzarmen arautzaileetan —Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean formalizatutakoetan edo notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan formalizatutakoetan— ezarritako urterokoei araubide hori aplikatzeko egon daitekeen edozein zalantza desagerrarazteko. Aldi berean, gogorarazten da hitzarmen hori gatazkak konpontzeko legez ezarritako edozein bitarteko egokiren ondorio izan daitekeela.

También, por razones de seguridad jurídica, se modifica la exención prevista para las indemnizaciones por despido o cese de los trabajadores y trabajadoras para eliminar cualquier duda interpretativa y confirmar expresamente a nivel legal que no derivan de un pacto, convenio o contrato, las indemnizaciones acordadas ante el servicio administrativo como paso previo al inicio de la vía judicial social y además se aclara el tratamiento previsto para las compensaciones económicas percibidas por el personal funcionario interino o el personal laboral temporal previstas en el artículo 2.6 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público y en la disposición adicional decimoséptima del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Halaber, segurtasun juridikorako, aldatu egin da langileen kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainetarako ezarritako salbuespena, interpretatzeko edozein zalantza desagerrarazteko eta lege-mailan berariaz berresteko, lan-arloko auzibidera jo aurreko urrats gisa, administrazio-zerbitzuan adostutako kalte-ordainak ez direla itun, hitzarmen edo kontratu baten ondorio. Horrez gainera, bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako langile lan-kontratudunek jasotako konpentsazio ekonomikoetarako ezarritako tratamendua argitu da. Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.6 artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezartzen dira konpentsazio horiek.

Por último, en lo que se refiere a las ganancias patrimoniales exentas se establece la posibilidad de aplicar las exenciones por transmisión de vivienda habitual previstas en el artículo 42.1 b), c) y e), en los supuestos de la transmisión de la vivienda familiar que hubiera tenido, para la persona contribuyente, la consideración de vivienda habitual en un momento anterior al plazo de dos años establecido para tener derecho a dichas exenciones, cuando dicha persona contribuyente hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

Azkenik, salbuetsitako ondare-irabaziei dagokienez, 42.1. artikuluaren b), c) eta e) letretan ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik ezarritako salbuespenak aplikatzeko aukera ezartzen da kasu honetarako: familia-etxebizitza eskualdatzen denean eta etxebizitza hori zergadunaren ohiko etxebizitza izan bada salbuespen horiek aplikatzeko eskubidea ezarritako bi urte epea baino lehenagoko une batean, baldin eta zergadunak etxebizitza horretan bizitzeari utzi badio ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean emandako erabaki judizial bat dela-eta.

En lo que al artículo 88.2 se refiere, se introduce una aclaración en relación con la integración en la base imponible de la rentabilidad financiero-fiscal derivada de las cantidades invertidas por la persona contribuyente en los proyectos de investigación, desarrollo e innovación tecnológica, en los proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular y en las producciones de largometrajes y cortometrajes cinematográficos y de otras obras audiovisuales, así como de series audiovisuales de ficción, animación o documental que permitan la confección de un soporte físico previo a su producción industrial seriada, en la producción y exhibición de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales, o en la edición de libros, de manera que la misma se integrara en la base Imponible general en concepto de rendimiento de actividades económicas, al estar vinculada y justificada por la realización de una actividad económica tal y como establece la normativa del Impuesto sobre Sociedades.

88.2 artikuluari dagokionez, argibide bat sartzen da zergadunak proiektu jakin batzuetan inbertitutako kopuruen ondoriozko errentagarritasun finantzario eta fiskala zerga-oinarrian integratzeari dagokionez, eta errentagarritasun hori zerga-oinarri orokorrean integratuko da jarduera ekonomikoen etekin gisa, lotuta eta justifikatuta baitago jarduera ekonomikoa egiteagatik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoarekin bat. Inbertsioak proiektu hauetan egin beharko dira: ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologiko proiektuetan; garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra lortzera zuzentzen diren proiektuetan; zinemako film luze eta film laburren eta ikus-entzunezko beste lan batzuen produkzioetan eta ikus-entzunezko sailen (fikziozkoak, animaziokoak edo dokumentalak) produkzioetan, baldin eta serie moduko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egiteko modua eskaintzen badute, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak ekoitzi eta emateko edo liburua argitaratzeko proiektuetan.

Adicionalmente, complementando las medidas introducidas por la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, en al ámbito de la Fiscalidad Verde y en concreto de la movilidad sostenible, se introduce un incentivo al desmantelamiento y reciclaje de los vehículos menos eficientes desde el punto de vista medioambiental, de manera que los y las contribuyentes podrán aplicar una deducción del 5 por 100 del valor de adquisición de un vehículo nuevo siempre que se haya procedido al achatarramiento de un vehículo de su titularidad que tuviera una antigüedad superior a 10 años, introduciendo para ello un nuevo artículo 91 septies en la Norma Foral del impuesto.

Horrez gain, apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak Fiskalitate Berdearen eremuan eta, zehazki, mugikortasun jasangarriaren eremuan sartutako neurriak osatzeko, pizgarri bat sartu da ingurumenaren ikuspegitik efizientzia gutxien duten ibilgailuak suntsitzeko eta birziklatzeko. Haren ondorioz, zergadunek ibilgailu berri baten erosketa-balioaren % 5eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, betiere txatar bihurtu badute beren titulartasuneko ibilgailu bat, 10 urtetik gorako antzinatasuna duena. Horretarako, 91 septies artikulu berria sartu da zergaren foru-arauan.

En relación con el régimen de infracciones y sanciones previstas en el artículo 118 se especifica que en el caso de infracciones por incumplimiento de la obligación de utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad e inviolabilidad de los registros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en el desarrollo de una actividad económica y/o por la destrucción, borrado o manipulación del software y archivos informáticos que sirven de soporte a los registros que documenten dichas entregas de bienes y prestaciones de servicios, no se incurrirá en responsabilidad por dichas infracciones cuando deba imponerse al mismo sujeto infractor una sanción por alguna de las infracciones previstas en los artículos 196 a 202 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia en relación con las operaciones afectadas por dicho incumplimiento. En el mismo sentido se modifica el artículo 133 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

118. artikuluan ezarritako arau-hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, jarduera ekonomiko baten barruan egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra ez betetzeak dakarren arau-haustea eta/edo ondasun-emate eta zerbitzu-prestazio horiek dokumentatzen dituzten erregistroen euskarri diren softwarea eta fitxategi informatikoak suntsitzeak, ezabatzeak edo manipulatzeak dakarren arau-haustea eginez gero, zehazten da arau-hauste horiek ez dutela erantzukizunik ekarriko baldin eta subjektu arau-hausle berari zehapen bat ezarri behar bazaio Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 196. artikulutik 202.era ezarritako arau-hausteetako bat egiteagatik, ez-betetze horrek ukitutako eragiketak direla eta. Ildo beretik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 133. artikulua aldatu da.

Para finalizar, se introducen actualizaciones y correcciones de referencias normativas en diversos artículos y disposiciones de la Norma Foral reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Amaitzeko, eguneratu eta zuzendu egin dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren zenbait artikulu eta xedapenetan aipatzen diren arauak.

Por lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades a continuación se exponen las modificaciones más relevantes.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, jarraian aldaketa garrantzitsuenak azaltzen dira.

En primera instancia, se revisa la calificación de actividad económica para el arrendamiento, la promoción y la compraventa de inmuebles, de manera que se reducen de tres a uno el número de personas empleadas. Dicha revisión afecta a los artículos 13 y 14 y a la disposición adicional decima de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades y se hace extensible al Impuesto sobre el Patrimonio.

Lehenik eta behin, higiezinak errentan emateko, sustatzeko eta salerosteko jarduera ekonomikoaren kalifikazioa berrikusi da, eta enplegatuen kopurua hirutik batera murriztu da. Berrikuspen horrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. eta 14. artikuluei eta hamargarren xedapen gehigarriari eragiten die, eta ondarearen gaineko zergari ere eragiten dio.

En relación con las normas especiales en materia de gastos reguladas en el artículo 32 de la Norma Foral del impuesto, se faculta a las entidades parcialmente exentas a las que se refiere el artículo 12.2 de dicha Norma Foral a que puedan deducir como gasto el importe que doten a una reserva, siempre que la misma se aplique, dentro de los períodos impositivos que finalicen dentro de los tres años siguientes, a cubrir el resultado contable negativo derivado de la realización de las actividades que constituyan su objeto social o finalidad específica de esos períodos impositivos. Transcurrido dicho plazo sin que exista un resultado contable negativo suficiente para aplicar completamente la cantidad dotada a la reserva, el importe restante incrementará la base imponible del período impositivo en que se cumpla el mencionado plazo, realizándose una corrección positiva adicional del 15 por 100 del mencionado importe. En la misma línea se modifica el artículo 10. 2. c) de la Norma Foral 4/2019, de 20 de marzo, de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo.

Zergari buruzko foru-arauaren 32. artikuluan araututako gastuei buruzko arau bereziei dagokienez, foru-arau horren 12.2 artikuluan aipatzen diren partzialki salbuetsitako erakundeei ahalmena ematen zaie erreserba bati ematen dioten zenbatekoa gastu gisa kentzeko, baldin eta erreserba hori aplikatzen bada, hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldien barruan, zergaldi horietan helburu sozial edo xede espezifiko diren jarduerak egitearen ondoriozko kontabilitate-emaitza negatiboa estaltzeko. Epe hori igaro eta erreserbari emandako zenbatekoa erabat aplikatzeko behar adinako kontabilitate-emaitza negatiborik ez badago, gainerako zenbatekoak gehitu egingo du aipatutako epea betetzen den zergaldiko zerga-oinarria, eta zenbateko horren % 15eko zuzenketa positibo gehigarria egingo da. Ildo beretik aldatu da Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauko 10. 2 artikuluaren c) letra.

Por lo que se refiere a la financiación de proyectos de investigación, desarrollo e innovación tecnológica, de proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular y de las producciones de largometrajes y cortometrajes cinematográficos y de otras obras audiovisuales, así como de series audiovisuales de ficción, animación o documental que permitan la confección de un soporte físico previo a su producción industrial seriada, de la producción y exhibición de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales, o de la edición de libros, previstos en los artículos 64 bis, 65 bis y 66 quinquies de la Norma Foral del impuesto, se precisa que los fondos pueden aportarse dentro del propio plazo para la formalización del contrato de financiación, el cual se determinará reglamentariamente.

Bestalde, proiektu hauen finantzaketa aztertzen da: ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak; garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra lortzera zuzentzen diren proiektuak; zinemako film luze eta film laburren eta ikus-entzunezko beste lan batzuen produkzioak eta ikus-entzunezko sailen (fikziozkoak, animaziokoak edo dokumentalak) produkzioak, baldin eta serie moduko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egiteko modua eskaintzen badute, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunak ekoitzi eta emateko edo liburua argitaratzeko proiektuak. Zergaren foru-arauaren 64 bis, 65 bis eta 66 quinquies artikuluetan arautzen dira, eta, haien finantzaketari dagokionez, orain zehazten da finantzaketa-kontratua formalizatzeko epearen barruan jarri ahal direla funtsak. Epe hori erregelamendu bidez finkatuko da.

Por otra parte, y en relación también con la financiación en proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular, por razones de coherencia y atendiendo a la realidad de determinados proyectos se amplía su ámbito de aplicación a la financiación de aquellas inversiones realizadas por otros contribuyentes vinculadas a los equipos pertenecientes al Listado Vasco de Tecnologías Limpias que cumplan los requisitos para generar el derecho a aplicar la deducción por inversiones en activos no corrientes nuevos a que se refiere el artículo 61 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

Beste alde batetik, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra lortzera zuzentzen diren proiektuen finantzaketari dagokionez, koherentzia bermatzeko eta proiektu jakin batzuen errealitatea kontuan hartuta, aplikazio-eremua zabaldu da beste zergadun batzuek Teknologia Garbien Euskal Zerrendako ekipoei lotuta egiten dituzten inbertsioen finantzaketara aplikatzeko, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen diren aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioen ondoriozko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzeko baldintzak betetzen badituzte.

En referencia a la Norma Foral 6/2025, de 12 de diciembre, por la que se establece un impuesto complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud y se modifican la Norma Foral del impuesto sobre sociedades y la Norma Foral del impuesto sobre la renta de las personas físicas, y a la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, se corrige una inexactitud y un error de referencia, respectivamente.

Abenduaren 12ko 6/2025 Foru Arauari dagokionez (haren bidez, batetik, talde multinazionalei eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko zerga osagarri bat ezartzen da, eta, bestetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru-araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-araua aldatzen dira) eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauari dagokionez, zehatz jasota ez zegoen alderdi bat eta aipamen oker bat zuzendu dira, hurrenez hurren.

En lo que atañe a la Norma Foral 6/2018, de 12 de diciembre, sobre régimen fiscal de cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia, atendiendo a la realidad del sector cooperativo, se determina que tendrán la consideración de especialmente protegidas las cooperativas agroalimentarias que tengan entre sus integrantes personas jurídicas, y se establece un porcentaje de operaciones con terceros en la actividad suministradora a terceras personas no socias similar al establecido para la actividad comercializadora.

Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauari dagokionez, ezarri da, kooperatiba-sektorearen errealitatea kontuan hartuta, bereziki babestutako kooperatibatzat hartuko direla kide juridikoen artean pertsona juridikoak dituzten nekazaritzako elikagaien kooperatibak. Horrez gainera, bazkide ez diren hirugarrenak hornitzeko jardueran hirugarrenekin egindako eragiketen ehuneko bat ezarri da, merkaturatze-jarduerarako ezarritakoaren antzekoa.

Finalmente, en el ámbito de la Norma Foral General Tributaria por un lado se tipifica un nuevo supuesto de responsable subsidiario en su artículo 42, las personas o entidades afectadas por la calificación de culpabilidad en los concursos de acreedores con los límites establecidos en la resolución judicial y por otro, se revisa el régimen de infracciones y sanciones de los Impuestos especiales de fabricación y del Impuesto sobre Hidrocarburos, de manera que se tipifican nuevas infracciones tributarias en consonancia con la normativa vigente en Territorio Común en esta materia.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 1. ***Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.***

Primero. Con efectos desde 1 de enero de 2025, y de aplicación a ejercicios anteriores no prescritos se introduce un nuevo número 40 en el artículo 9 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con el siguiente contenido:

> "40. Estarán exentas de este Impuesto las cantidades satisfechas a las personas que hubiesen sufrido cualquier tipo de hechos, conductas o comportamientos que pudieron atentar contra su libertad e indemnidad sexual y que en el momento de producirse los hechos fueran menores edad, o se encontrasen en situación equiparable o tuviesen una circunstancia modificativa de su capacidad que suponga que debieran estar sometidos a tutela o curatela, de acuerdo con el sistema previsto en el Acuerdo de 8 de enero de 2026 entre el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes; el Defensor del Pueblo; la Conferencia Episcopal Española; y la Conferencia Española de Religiosos, en su Protocolo de aplicación de 30 de marzo de 2026 entre el Ministerio de la Presidencia, Justicia y Relaciones con las Cortes; el Defensor del Pueblo; la Conferencia Episcopal Española; y la Conferencia española de Religiosos, para la organización y funcionamiento del sistema de reconocimiento y reparación de las víctimas de abusos sexuales en el ámbito de la Iglesia católica y las satisfechas por la Iglesia católica a las víctimas de abusos sexuales con arreglo a sus propios sistemas y planes de reparación.
>
> Asimismo, estarán exentas de este Impuesto las cantidades satisfechas por cualquier persona o entidad en virtud de resolución judicial a las personas señaladas en el párrafo anterior y por iguales causas."

Segundo. Con efectos desde 1 de enero de 2025, se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 88, que queda redactado en los siguientes términos:

> "3. Las deducciones podrán aplicarse respetando iguales límites en las declaraciones de los períodos impositivos que concluyan en los treinta años inmediatos y sucesivos."

Tercero. Con efectos desde 1 de enero de 2026, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. Se da nueva redacción al número 1 del artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

Azkenik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren esparruan, alde batetik, erantzule subsidiarioen kasu berri bat tipifikatu da 42. artikuluan, zehazki hartzekodunen konkurtsoetan erruduntasun-kalifikazioak ukitutako pertsonak edo entitateak, ebazpen judizialean ezarritako mugekin, eta, bestetik, fabrikazioaren gaineko zerga berezien eta hidrokarburoen gaineko zergaren arloko arau-hausteen eta zehapenen araubidea berrikusi da, eta tributu-arloko arau-hauste berriak tipifikatu dira, lurralde erkidean arlo horretan indarrean dagoen araudiarekin bat etorrita.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluaren 1. eta 3. apartatuetan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoari buruzko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena ere.

Halaber, bete dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 87/2021 Foru Dekretuak ezarritako izapideak (Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa).

1. artikulua. ***Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua aldatzea.***

Lehenengoa. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, preskribatu gabeko ekitaldietan aplikatzeko, 40. zenbakia gehitzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan; hona haren edukia:

> "40. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira beren sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako edozein egitate, jokabide edo portaera jasan zuten pertsonei ordaindu zaizkien zenbatekoak, baldin eta egitateak gertatu ziren unean pertsona horiek adingabeak baziren, edo parekatzeko moduko egoeran bazeuden edo tutoretzapean edo kuradoretzapean egon behar bazuten beren gaitasuna aldatzen zuen zirkunstantzia baten ondorioz, Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetako Ministerioaren, Herriaren Defendatzailearen, Espainiako Gotzainen Biltzarraren eta Erlijiosoen Espainiako Biltzarraren arteko 2026ko urtarrilaren 8ko Akordioan ezarritako sistemaren arabera, eta Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetako Ministerioaren, Herriaren Defendatzailearen, Espainiako Gotzainen Biltzarraren eta Erlijiosoen Espainiako Biltzarraren artean adostutako 2026ko martxoaren 30eko aplikazio-protokoloaren arabera (protokoloaren xedea: Eliza Katolikoaren eremuan sexu-abusuen biktimak aitortzeko eta halakoei kalte-ordainak emateko sistemaren antolamendua eta funtzionamendua). Salbuetsita egongo dira, halaber, Eliza Katolikoak kalte-ordaina emateko bere sistemei eta planei jarraituz sexu-abusuen biktimei ordaindu dizkien zenbatekoak.
>
> Horrez gainera, zerga honetatik salbuetsita egongo dira edozein pertsonak edo entitatek aurreko paragrafoan adierazitako pertsonei ebazpen judizial bat dela-bide arrazoi berberengatik ordaindu dizkien zenbatekoak."

Bigarrena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hau egiten zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Berridazten da 88. artikuluaren 3. apartatua; honela geratzen da idatzita:

> "3. Kenkariak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, muga berak errespetatuz."

Hirugarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. Berridazten da 9. artikuluko 1. zenbakia: honela geratzen da idatzita:

“1. Las anualidades por alimentos percibidas de las personas progenitoras en virtud del convenio regulador a que se refiere el artículo 90 del Código Civil, o del convenio equivalente previsto en los ordenamientos de las Comunidades Autónomas, aprobado por la autoridad judicial o formalizado ante la letrada o el letrado de la Administración de Justicia, o en escritura pública ante notaria o notario, con independencia de que dicho convenio derive o no de cualquier medio adecuado de solución de controversias legalmente previsto.

Igualmente estarán exentas las anualidades por alimentos percibidas de las personas progenitoras en virtud de decisión judicial en supuestos distintos a los establecidos en el párrafo anterior.

El mismo tratamiento tendrán las cantidades percibidas del Fondo de Garantía del Pago de Alimentos regulado en el Real Decreto 1.618/2007, de 7 de diciembre, sobre organización y funcionamiento del Fondo de garantía del pago de Alimentos.”

Dos. Se modifica el número 5 del artículo 9, con el siguiente contenido:

“5. Las indemnizaciones por despido o cese del trabajador o de la trabajadora, en la cuantía establecida con carácter obligatorio en el Estatuto de los Trabajadores, en su normativa reglamentaria de desarrollo o, en su caso, en la normativa reguladora de la ejecución de sentencias, sin que pueda considerarse como tal la establecida en virtud de convenio, pacto o contrato. Se entenderán comprendidas en este apartado las compensaciones económicas percibidas por el personal funcionario interino o el personal laboral temporal previstas en el artículo 2.6 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público y en la disposición adicional decimoséptima del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público. Asimismo, estarán exentas las indemnizaciones que, en aplicación del apartado 2 del artículo 30 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, la persona socia trabajadora o de trabajo perciba al causar baja en la cooperativa, en la misma cuantía que la establecida como obligatoria por la normativa laboral para el cese previsto en la letra c) del artículo 52 del Estatuto de los Trabajadores.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, en los supuestos de despidos colectivos realizados de conformidad con lo dispuesto en el artículo 51 del Estatuto de los Trabajadores, o extinciones de contratos producidas por las causas previstas en la letra c) del artículo 52 del citado Estatuto, siempre que, en ambos casos, se deban a causas económicas, técnicas, organizativas, de producción o de fuerza mayor quedará exenta la parte de indemnización percibida que no supere los límites establecidos con carácter obligatorio en el mencionado Estatuto para el despido improcedente. Con los mismos límites quedarán exentas las cantidades que reciban las personas trabajadoras que, al amparo de un contrato de sustitución, rescindan su relación laboral y anticipen su retiro de la actividad laboral.

A los efectos de lo previsto en este número 5, no tendrán la consideración de indemnizaciones establecidas en virtud de convenio, pacto o contrato, las acordadas en el acto de conciliación ante el Servicio administrativo al que se refiere el artículo 63 de la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la jurisdicción social.

El importe de la indemnización exenta establecida en este número no podrá superar la cantidad de 187.272 euros.”

“1. Kode Zibilaren 90. artikuluan aipatutako hitzarmen arauemailea edo autonomia-erkidegoetako ordenamenduetan ezarritako hitzarmen baliokidea dela-bide gurasoengandik jasotzen diren mantenurako urtekoak; hitzarmen hori agintaritza judizialak onartu behar du, edo Justizia Administrazioaren letradun baten aurrean formalizatu behar da, edo notario aurreko eskritura publikoan, kontuan izan gabe hitzarmen hori gatazkak konpontzeko legez ezarritako edozein bitarteko egokiren ondorio den ala ez.

Halaber, erabaki judizial baten bitartez gurasoengatik jasotzen diren mantenurako urtekoak salbuetsita egongo dira, aurreko paragrafoan ezarritakoak ez beste kasu batzuetan.

Tratamendu bera izango dute Mantenuaren Ordainketa Bermatzeko Funtsetik jasotako kopuruek. Funts hori abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuan arautu zen (Mantenuaren Ordainketa Bermatzeko Funtsaren antolaera eta funtzionamenduari buruzkoa da errege-dekretu hori).”

Bi. Aldatzen da 9. artikuluko 5. zenbakia; honela geratzen da idatzita:

“5. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hura garatzeko araudietan edo, halakorik balego, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuetan finkatutako kalte-ordaina ezingo da hartu nahitaezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat. Apartatu honetan sartuko dira bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako langile lan-kontratudunek jasotzen dituzten konpentsazio ekonomikoak, zeinak jasotzen baitira 20/2021 Legearen 2.6 artikuluan (20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa) eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian (5/2015 LED, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzekoa). Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 30. artikuluaren 2. apartatua aplikatuta, bazkide langileak edo lan-bazkideak kooperatiban baja hartzean jasotzen dituen kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, Langileen Estatutuaren 52. artikuluaren c) letran lana uzteko lan-araudiak nahitaezkotzat ezarritako zenbateko berean.

Aurreko paragrafoetan jasotakoa gorabehera, Langileen Estatutuko 51. artikuluaren arabera eginiko kaleratze kolektiboak direnean edo kontratuak estatutu horretako 52.c) artikuluan jasotako arrazoiengatik azkentzen direnean, zerga ordaintzetik salbuetsiko da estatutu horretan bidegabeko kaleratzeagatik nahitaezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia, betiere kaleratzeak eta kontratu-azkentzeak gertatu badira arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, ezinbesteko kasuengatik, edo antolaketako edo ekoizpeneko arrazoiengatik. Muga berberekin salbuetsita geratuko dira ordezkapen-kontratu baten babesean lan-harremana deuseztatu eta lan-jardueratik erretiratzea aurreratzen duten langileek jasotzen dituzten zenbatekoak.

5. apartatu honetan ezarritako ondorioetarako, ez dira hartuko hitzarmen, itun edo kontratu baten bidez ezarritako kalte-ordaintzat Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 63. artikuluan aipatzen den administrazio-zerbitzuaren aurreko adiskidetze-ekitaldian adosten diren kalte-ordainak.

Apartatu honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 187.272 euro izango da, gehienez.”

Tres. Se añade un párrafo al final del número 6 del artículo 9, con el siguiente contenido:

"Asimismo, las indemnizaciones como consecuencia de responsabilidad civil por los mismos daños, satisfechos por la entidad aseguradora del causante del daño no previstas en el párrafo anterior, cuando deriven de un acuerdo de mediación o de cualquier otro medio adecuado de solución de controversias legalmente establecido, siempre que en la obtención del acuerdo por ese medio haya intervenido un tercero neutral y el acuerdo se haya elevado a escritura pública, hasta la cuantía que resulte de aplicar, para el daño sufrido, el sistema para la valoración de los daños y perjuicios causados a las personas en accidentes de circulación, incorporado como anexo en el texto refundido de la Ley sobre responsabilidad civil y seguro en la circulación de vehículos a motor, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2004, de 29 de octubre."

Cuatro. Se da nueva redacción al número 24 del artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

"24. Los dividendos y participaciones en beneficios a que se refieren las letras a) y b) del artículo 34 de esta Norma Foral, con el límite de 1.500 euros anuales.

No obstante, cuando los dividendos o participaciones en beneficios se correspondan exclusivamente con los beneficios obtenidos en la transmisión, que cumpla lo dispuesto en la letra h) del apartado 1 del artículo 42 de esta Norma Foral, de empresas y de las acciones y participaciones en una entidad quedará exento, asimismo, el 30 por 100 de los dividendos y participaciones en beneficios que superen el importe de 1.500 euros previsto en el párrafo anterior percibidos en el año de la mencionada transmisión y en los 4 ejercicios siguientes.

Esta exención no se aplicará a los dividendos y beneficios distribuidos por las instituciones de inversión colectiva, ni a los procedentes de valores o participaciones adquiridas dentro de los dos meses anteriores a la fecha en que aquellos se hubieran satisfecho cuando, con posterioridad a esta fecha, dentro del mismo plazo, se produzca una transmisión de valores homogéneos.

En el caso de valores o participaciones no admitidos a negociación en alguno de los mercados secundarios oficiales de valores definidos en la Directiva 2014/65/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de mayo de 2014 relativa a los mercados de instrumentos financieros, el plazo será de un año.

Asimismo, esta exención no se aplicará al interés de las aportaciones satisfecho a sus socios y socias por las cooperativas."

Cinco. Se da nueva redacción al número 25 del artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

"25. Los rendimientos derivados de las prestaciones obtenidas en forma de renta por las personas con discapacidad correspondientes a las aportaciones a que se refiere el artículo 72 de esta Norma Foral, con el límite de tres veces el salario mínimo interprofesional.

El límite previsto en el párrafo anterior se aplicará sobre los rendimientos no exentos de acuerdo con lo previsto en el número 38 de este artículo."

Seis Se modifica el segundo párrafo del número 37 del artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

"En el caso de que el o la contribuyente aplique asimismo la exención prevista en el artículo 42.1 f) de esta Norma Foral, la cantidad máxima prevista en el párrafo anterior se aplicará de manera conjunta con la prevista en el primer párrafo del mencionado artículo 42.1 f)."

Hiru. Paragrafo bat gehitzen da 9. artikuluko 6. zenbakiaren amaieran; hona hemen haren edukia:

"b) Las cantidades que constituyan aplicación de resultados y, en particular, de los que se destinen al sostenimiento de las actividades exentas a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 38 de esta Norma Foral.

"b) Oro har emaitzen aplikazio diren zenbatekoak, eta, zehazki, foru arau honetako 38.1.a) artikuluan aipatzen diren jarduera salbuetsiak mantentzeko bideratzen direnak.

No obstante, cuando la entidad realice una actividad económica con carácter esporádico y tenga un resultado contable negativo derivado de la realización de las actividades que constituyan su objeto social o finalidad específica, resultará deducible el importe del excedente de explotación que haya sido aplicado en el ejercicio con el límite de dicho resultado negativo.

Hala ere, entitateak noizbehinka egiten badu jarduera ekonomikoa, eta bere helburu sozial edo xede espezifiko diren jardueren ondorioz kontabilitate-emaitza negatiboa badu, kengarria izango da ekitaldian aplikatu den ustiapenaren soberakinaren zenbatekoa, eta emaitza negatibo hori izango da muga.

Igualmente, se considerará gasto deducible el importe que se dote a una reserva, siempre que la misma se aplique, dentro de los períodos impositivos que finalicen dentro de los tres años siguientes, a cubrir el resultado contable negativo derivado de la realización de las actividades que constituyan su objeto social o finalidad específica de esos períodos impositivos. Si hubiera transcurrido el plazo señalado sin que exista un resultado contable negativo suficiente para aplicar completamente la cantidad dotada a la reserva, el importe restante incrementará la base imponible del período impositivo en que se cumpla el mencionado plazo, realizándose una corrección positiva adicional del 15 por 100 del mencionado importe. El contribuyente no podrá disponer del saldo de la reserva durante el período de tiempo señalado, salvo por las cantidades que hayan sido aplicadas.

A estos efectos se entenderá que la actividad económica es de carácter esporádico cuando tenga una duración inferior total a 15 días, continuos o alternos, en el ejercicio."

Seis. Se da nueva redacción al tercer párrafo de la letra c) del apartado 1 del artículo 33, que queda redactado en los siguientes términos:

"A efectos de computar los ingresos a que se refiere esta letra, se incluirán también los dividendos o participaciones en beneficios de otras entidades respecto de las cuales el contribuyente tenga una participación indirecta que cumpla los requisitos de porcentaje y antigüedad previstos en la letra a), cuando los referidos beneficios y entidades cumplan, a su vez, los requisitos establecidos en las demás letras de este apartado, y también se incluirán las rentas derivadas de la transmisión de la participación en dichas entidades cuando se cumplan los requisitos establecidos en el artículo 34 de esta Norma Foral. No obstante lo anterior, el requisito de porcentaje de participación previsto en la letra a) no será exigible cuando las entidades, respecto de las cuales el contribuyente tenga una participación indirecta, reúnan las circunstancias a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio para formar parte del mismo grupo de sociedades con la entidad directamente participada y formulen estados contables consolidados con la misma."

Siete. Se da nueva redacción al partado 9 del artículo 39, que queda redactado en los siguientes términos:

"9. Cuando las deducciones aplicadas como consecuencia de lo dispuesto en los artículos 64 bis, 65 bis o 66 quinquies de esta Norma Foral superen las cantidades invertidas por parte del contribuyente en los proyectos de investigación, desarrollo e innovación tecnológica, en proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular y en las producciones de largometrajes y cortometrajes cinematográficos y de otras obras audiovisuales, así como de series audiovisuales de ficción, animación o documental que permitan la confección de un soporte físico previo a su producción industrial seriada, en la producción y exhibición de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales, o en la edición de libros a que se refieren los mencionados artículos, se integrará en su base imponible la diferencia positiva entre las deducciones aplicadas y las cantidades desembolsadas para la financiación de los mencionados proyectos, producciones o ediciones."

Ocho. Se añade un nuevo apartado 10 al artículo 39, con el siguiente contenido:

"10. En los supuestos de transmisión de empresas a los que se refiere la letra h) del artículo 42.1 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en caso de incumplimiento del plazo de mantenimiento de 5 años, a que se refiere el número 2 de dicha letra, el adquirente ingresará en el ejercicio en que se hubiera producido el incumplimiento el 5 por ciento de la renta positiva puesta de manifiesto en la transmisión, con independencia de su integración o no en la base imponible, por cada uno de los ejercicios en los que no se hubiera cumplido el compromiso de mantener la empresa o las acciones o participaciones recibidas.

Halaber, gastu kengarritzat hartuko da erreserba bati ematen zaion zenbatekoa, baldin eta erreserba hori aplikatzen bada hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldien barruan, zergaldi horietan helburu sozial edo xede espezifiko diren jarduerak egitearen ondoriozko kontabilitate-emaitza negatiboa estaltzeko. Adierazitako epea igaro eta erreserbari emandako zenbatekoa erabat aplikatzeko behar adinako kontabilitate-emaitza negatiborik ez badago, gainerako zenbatekoak gehitu egingo du aipatutako epea betetzen den zergaldiko zerga-oinarria, eta zenbateko horren % 15eko zuzenketa positibo gehigarria egingo da. Zergadunak ezin izango du baliatu erreserbaren saldoa adierazitako aldian, aplikatu diren kopuruetan izan ezik.

Ondorio horietarako, jarduera ekonomikoa noizbehinkakoa dela joko da baldin eta ekitaldian jarduerak guztira 15 egun baino gutxiago irauten badu —egunok jarraian zein aldizka eginak—."

Sei. Berridazten da 33. artikuluaren 1. apartatuaren c) letraren hirugarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

"Letra honetan aipatutako sarrerak konputatzeko, kontuan hartuko dira beste entitate batzuetako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, baldin eta, batetik, zergadunak zeharkako partaidetza badu entitate horietan, zeinak a) letran portzentajeari eta antzinatasunari buruz azaltzen diren baldintzak betetzen dituen, eta, bestetik, aipatutako mozkin eta entitate horiek, gainera, zenbaki honetako gainerako letretan xedaturikoa betetzen badute. Entitate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere konputatuko dira, foru arau honetako 34. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean. Aurrekoa gorabehera, a) letran aurreikusitako partaidetza portzentajea ez da exijituko baldin eta zergadunak zeharka partaidetutako entitateak Merkataritza Kodearen 42. Artikuluko baldintzak betetzen baditu zuzenean partaidetutako entitatearekin sozietate talde bereko kide izateko, eta harekin kontabilitate egoera orri kontsolidatuak formulatzen baditu."

Zazpi. Berridazten da 39. artikuluaren 9. apartatua; honela geratzen da idatzirik :

"9. Foru-arau honen 64 bis, 65 bis edo 66 quinquies artikuluetan ezarritakoaren ondorioz aplikatutako kenkariak handiagoak badira artikuluotan aipatzen diren proiektu nahiz ekoizpenetan zergadunak inbertituriko kopuruak baino, zergadunaren zerga-oinarrian sartuko da aplikatutako kenkarien eta proiektu nahiz ekoizpen horiek finantzatzeko ordaindutako kopuruen arteko diferentzia positiboa. Hona artikulu horietan aipaturiko proiektu-ekoizpenak: ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak; garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuak; zinemako film luze eta film laburren eta beste ikus-entzunezko lan batzuen ekoizpenak; serie moduko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisikoa egiteko modua eskaintzen duten fikziozko, animaziozko edo dokumental erako ikus-entzunezko serieak, edo arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpenak eta emanaldiak edo liburuen argitalpena".

Zortzi. 10. apartatua gehitzen zaio 39. artikuluari; hona haren testua:

10. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42.1 artikuluaren h) letran aipatzen diren enpresak eskualdatzen direnean, letra horren 2. zenbakian aipatzen den 5 urteko mantentze-epea betetzen ez bada, eskuratzaileak eskualdatzean agerian utzitako errenta positiboaren ehuneko 5 ordainduko du ez-betetzea gertatu den ekitaldian, zerga-oinarrian txertatuta dagoen ala ez kontuan hartu gabe, enpresa edo jasotako akzioak edo partaidetzak mantentzeko konpromisoa bete ez den ekitaldi bakoitzeko.

Si el incumplimiento afectara al requisito de mantenimiento del promedio de plantilla durante el referido plazo, a que se refiere el número 3 de dicha letra, el adquirente deberá integrar en la base liquidable del ejercicio del incumplimiento el 1 por 100 del volumen de operaciones de la entidad cuyas acciones o participaciones hubieran sido adquiridas realizado en el período impositivo de incumplimiento por cada unidad de pérdida de empleo, computándose asimismo las fracciones de unidad."

Ez-betetzeak aipatutako epe horretan plantillaren batez bestekoa mantentzeko betekizunari eragiten badio (letra horren 3. zenbakian aipatzen da), eskuratzaileak ez-betetzearen ekitaldiko likidazio-oinarrian sartu beharko du enplegu-galerako unitate bakoitzak ez-betetzearen zergaldian eskuratutako akzioak edo partaidetzak dituen erakundearen eragiketa-bolumenaren % 1, eta unitate-zatikiak ere zenbatuko dira."

Nueve. Se añade un nuevo apartado 11 al artículo 39, con el siguiente contenido:

Bederatzi. 11. apartatua gehitzen zaio 39. artikuluari; hona haren testua:

"11. No se integrarán en la base imponible las rentas que se pongan de manifiesto con ocasión del pago en especie de deudas tributarias a que se refiere el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 127 de esta Norma Foral."

"11. Ez dira zerga-oinarrian sartuko foru-arau honen 127. artikuluaren 1. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren zerga-zorrak gauzatan ordaintzeagatik agerian jartzen diren errentak."

Diez. Se corrige un error de referencia en el apartado 6 del artículo 59 y donde dice dos debe decir tres.

Hamar. Erreferentzia-akats bat zuzendu da 59. artikuluaren 6. atalean eta bi dioen lekuan hiru esan behar du.

Once. Se da nueva redacción al primer párrafo de la letra d) del apartado 3 del artículo 61, que queda redactado en los siguientes términos:

Hamaika. Berridazten da 61. artikuluaren 3. apartatuaren d) letraren lehen paragrafoa; honela geratzen da idatzirik:

"d) Que el importe del conjunto de activos objeto de la inversión supere en cada ejercicio el 10 por 100 del importe de la suma de los valores netos contables preexistentes del activo no corriente que forme parte del inmovilizado material e inversiones inmobiliarias y del inmovilizado intangible correspondiente a aplicaciones informáticas y a las inversiones a que se refiere la letra d) del apartado 1 de este artículo, deduciendo las amortizaciones y pérdidas por deterioro de valor que se hubieran contabilizado, o en otro caso, que sea superior a 5 millones de euros. No será de aplicación lo dispuesto en esta letra a las inversiones en activos no corrientes nuevos vinculados a los equipos pertenecientes al Listado Vasco de Tecnologías Limpias, a que se refiere el artículo 65.1.d) de esta Norma Foral, sin perjuicio de que sean tenidas en cuenta a efectos del cómputo del 10 por 100 o de los 5 millones señalados para el resto de las inversiones."

"d) Inbertsioaren xede diren aktiboen zenbateko osoa, ekitaldi bakoitzean, honako hauen baturaren % 10 baino gehiago izan behar da: ibilgetu materialaren eta higiezinetako inbertsioen parte den aktibo ez-korrontearen aurreko kontabilitateko balio garbiak; aplikazio informatikoei dagokien ibilgetu ez-materiala, eta artikulu honetako 1.d zenbakian aipatzen diren inbertsioak; batura horretatik kendu egingo dira kontabilizatuta jasotako amortizazioak nahiz balio-narriaduraren ondoriozko galerak; edo, beste kasu batean, zenbateko hori 5 milioi eurotik gorakoa bada. Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Teknologia Garbien Euskal Zerrendako ekipoei lotutako aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioei, foru-arau honetako 65.1.d) artikuluan aipatzen direnei, hargatik eragotzi gabe inbertsio horiek kontuan hartzea gainerako inbertsioetarako adierazitako % 10eko edo 5 milioiko zenbaketarako".

Doce Se da nueva redacción al apartado 5 del artículo 64 bis, que queda redactado en los siguientes términos:

Hamabi. Berridazten da 64. artikuluaren 5. apartatua; honela geratzen da idatzirik:

"5. Para que el contribuyente que participa en la financiación del proyecto pueda aplicar lo previsto en este artículo, será necesario que los fondos que aporte sean utilizados para financiar los costes en los que incurra el contribuyente que realiza el proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica durante el mismo ejercicio, aunque haya incurrido en ellos antes de recibir dichos fondos, o en los siguientes pudiendo aportarse los fondos dentro del propio plazo para la formalización del contrato de financiación, que se establecerá reglamentariamente. "

"5. Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ekartzen dituen funtsak nahitaez erabili beharko dira ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak ekitaldi horretan bertan dituen kostuak — nahiz eta kostu horiek ekitaldi horretan funtsak jaso baino lehen izan— edo hurrengo ekitaldietan dituenak finantzatzeko; funtsen ekarpena, bestalde, finantzaketa-kontratua formalizatzeko epearen barruan gauzatu ahal izango da eta erregelamendu bidez ezarriko da. "

Trece. Se da nueva redacción a los apartados 1, 4, 5 y 7 del artículo 65 bis, que quedan redactados en los siguientes términos:

Hamahiru. Berridazten dira 65 bis artikuluaren 1., 4., 5. eta 7. apartatuak; honela geratzen dira idatzita:

"1. Los contribuyentes de este Impuesto, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre la Renta de No Residentes que operen con mediación de establecimiento permanente que participen en la financiación de proyectos, realizados por otros contribuyentes, que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética o la economía circular que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 65 de esta Norma Foral para generar el derecho a las deducciones establecidas en el mismo, tendrán derecho a practicar una deducción de la cuota líquida en las condiciones y con los requisitos establecidos en este artículo que será incompatible, total o parcialmente, con las deducciones a las que tendrían derecho esos otros contribuyentes por aplicación de lo dispuesto en los preceptos citados.

"1. Zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek (establezimendu iraunkorraren bidez dihardutenak) parte hartzen badute beste zergadun batzuek egindako proiektuetako finantzaketan eta proiektuok garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen badute dute eta foru-arau honen 65. artikuluan ezarritako kenkariak sortzeko artikulu horretan bertan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, orduan, zergadun horiek artikulu honetan ezarritako kenkariak sortzeko eskubidea izateko, kuota likidoan kenkari bat aplikatu ahal izango dute (artikulu honetan ezarritako baldintza eta eskakizunetan). Kenkari hori bateraezina izango da, osorik edo partez, beste zergadun horiek aipatutako manuetan xedatutakoa aplikatzeagatik eskubidez legozkiekeen kenkariekin.

Se incluye asimismo en este artículo la participación en la financiación de las inversiones en activos no corrientes nuevos realizadas por otros contribuyentes vinculados a los equipos pertenecientes al Listado Vasco de Tecnologías Limpias a que se refiere el artículo 65.1 d) de esta Norma Foral que cumplan los requisitos para generar el derecho aplicar a la deducción a que se refiere el artículo 61 de esta Norma Foral."

Artikulu honetan sartu beharrekoa da, orobat, Teknologia Garbien Euskal Zerrendako ekipoei lotuta beste zergadun batzuek aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioen finantzaketan parte hartzea (foru-arau honen 65.1 d) artikuluan aipatutako ekipoak), baldin eta foru-arau honen 61. artikuluan aipatutako kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzeko baldintzak betetzen badituzte zergadun horiek."

"4. Cuando los contribuyentes opten por la aplicación del régimen establecido en este artículo, el contribuyente que realiza el proyecto que procure el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética o la economía circular no tendrá derecho a la aplicación del importe total o parcial correspondiente a las deducciones previstas en el artículo 65 de esta Norma Foral, o, en el caso al que se refiere el segundo párrafo del apartado 1 de este artículo, a la prevista en el artículo 61 de esta Norma Foral, y en su lugar, el contribuyente que participa en la financiación del mismo tendrá derecho a acreditar en su autoliquidación la deducción prevista en los mencionados preceptos, determinándose su importe en las mismas condiciones que se hubieran aplicado al contribuyente que realiza el proyecto.

No obstante lo anterior, el contribuyente que participa en la financiación del proyecto no podrá aplicar una deducción superior al importe correspondiente, en términos de cuota, resultante de multiplicar por 1,20 el importe de las cantidades por él desembolsadas para la financiación del proyecto. El exceso podrá ser aplicado por el contribuyente que realiza el proyecto que procure el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética o la economía circular."

"5. Para que el contribuyente que participa en la financiación del proyecto pueda aplicar lo previsto en este artículo, será necesario que los fondos que aporte sean utilizados para financiar los costes en los que incurra el contribuyente que realiza el proyecto que procure el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética o la economía circular durante el mismo ejercicio, aunque haya incurrido en ellos antes de recibir dichos fondos, o en los siguientes pudiendo aportarse los fondos dentro del propio plazo para la formalización del contrato de financiación, que se establecerá reglamentariamente. "

"7. Para la aplicación de lo dispuesto en este artículo será preceptivo que se obtenga el informe motivado o el certificado a que se refiere el apartado 4 del artículo 65 de esta Norma Foral, que deberá presentarse, junto con el mencionado contrato de financiación, en una comunicación a la Administración tributaria suscrita tanto por el contribuyente que realiza el proyecto que procure el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética o la economía circular, como por el que participa en su financiación con anterioridad al inicio del período voluntario de declaración correspondiente al período impositivo en el que comience el desarrollo del proyecto en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Asimismo, habrá que adjuntar a la comunicación a la que se refiere el párrafo anterior, el contrato formalizado con el intermediario que, en su caso, actúe en la estructuración del contrato de financiación.

Adicionalmente, en el caso al que se refiere el segundo párrafo del apartado 1 de este artículo, deberá aportarse el informe motivado emitido por el órgano del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco o de un organismo o entidad adscrito al mismo, de que las inversiones realizadas se encuentran directamente vinculadas con equipos completos a que se refiere la Orden del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco por la que se aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias, que deberá adjuntarse a la comunicación a que se refiere el primer párrafo de este apartado."

Catorce. Se da nueva redacción al artículo 66 ter, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 66 ter. *Deducción por gastos de formación profesional.*

1. La realización de actividades de formación profesional dará derecho a practicar una deducción de la cuota líquida del 10 por 100 de los gastos efectuados en el período impositivo.

2. Cuando las actividades de formación profesional se lleven a cabo en el ámbito de la economía plateada y de la economía del cuidado el porcentaje de deducción será del 15 por 100 de los gastos efectuados en el período impositivo.

"4. Zergadunek artikulu honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratzen badute, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen duen proiektua egiten duen zergadunak ez du izango foru-arau honen 65. artikuluan ezarritako kenkarien zenbatekoa guztiz edo partez aplikatzeko eskubiderik, edo artikulu honen1. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen den kasuan foru-arau honen 61. artikuluan ezarritako kenkaria guztiz edo partez aplikatzeko eskubiderik; eta, horren ordez, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak artikulu horretan ezartzen den kenkaria bere autolikidazioan egiaztatzeko eskubidea izango du. Kenkari horren zenbatekoa zehazteko, berriz, proiektua egin duen zergadunari aplikatu zitzaizkiokeen baldintza berberak erabiliko dira.

Aurrekoa gorabehera, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kuotan gehienez ere aplika dezakeen kenkariaren zenbatekoa hau da: zergadunak berak proiektua finantzatzeko ordaindutako zenbatekoa bider 1,20 eginez ateratzen den zenbatekoa. Garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen duen proiektua egiten duen zergadunak aplikatu ahal izango du soberakina."

"5. Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ekartzen dituen funtsak nahitaez erabili beharko ditu garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen duen proiektuarekin lotuta ekitaldi berean edo hurrengoetan dituen kostuak finantzatzeko —nahiz eta funtsak jaso aurreko kostuak izan—; funtsen ekarpena, bestalde, finantzaketa-kontratua formalizatzeko epearen barruan gauzatu ahal izango da eta erregelamendu bidez ezarriko da.."

"7. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, foru-arau honen 65. artikuluaren 4. apartatuan aipatzen den txosten arrazoitua edo ziurtagiria lortu beharko da, zeina aipatutako finantzaketa-kontratuarekin batera aurkeztu beharko baitzaio komunikazio batean Zerga Administrazioari. Komunikazioa, berriz, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra sustatzen duen proiektua egiten duen zergadunak zein haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatu behar dute, proiektua garatzen hasiko den zergaldiari dagokion aitorpena egiteko borondatezko aldia hasi baino lehen, eta erregelamenduz ezartzen den eran aurkeztu beharko da.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatzen den komunikazioari finantzaketa-kontratuaren egituraketan parte hartzen duen bitartekariarekin formalizatutako kontratua erantsi beharko zaio, bitartekaririk izan bada.

Horrez gainera, artikulu honen 1. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen den kasuan, aurkeztu beharko da Eusko Jaurlaritzako sail eskuduneko organoak edo hari atxikitako organismo edo erakunde bateko organoak emandako txosten arrazoitua, zeinaren bidez adierazi behar baita egindako inbertsioak zuzenean lotuta daudela Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren aginduan aipatzen diren ekipo osoekin. Txostena apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den komunikazioari erantsi beharko zaio".

Hamalau. Berridazten da 66 ter artikulua; honela geratzen da idatzita:

"66 ter artikulua. Lanbide-heziketako gastuengatiko kenkaria.

1. Lanbide-heziketako jarduerak egiteak eskubidea emango du zergaldian egindako gastuen % 10eko kenkaria kuota likidoan egiteko.

2. Lanbide-heziketako jarduerak zilarrezko ekonomiaren eta zaintzaren ekonomiaren esparruan egiten badira, kenkariaren ehunekoa zergaldian egindako gastuen % 15 izango da.

3. No obstante, los contribuyentes que formalicen contratos vinculados a programas de Formación Profesional Dual, definida en el apartado 12 de artículo 2 de la Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, de ordenación e integración de la Formación Profesional, así como de Formación Dual universitaria regulada en el Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, con personas inscritas en ciclos formativos oficiales podrán aplicar una deducción del 20 por 100 de los gastos salariales asociados al contrato durante el periodo formativo reconocido oficialmente.

3. Hala ere, Lanbide Heziketa Dualeko programei lotutako kontratuak (Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 2. artikuluaren 12. apartatuan definitzen da heziketa duala) eta irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan araututako unibertsitate-prestakuntza dualeko programei lotutakoak heziketa-ziklo ofizialetan inskribatutako pertsonekin formalizatzen dituzten zergadunek kontratuari lotutako soldata-gastuen % 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute ofizialki onartutako prestakuntza-aldian.

4. En el caso de que los gastos efectuados por la realización de actividades de formación profesional a que se refiere este artículo en el período impositivo sean mayores que la media de los efectuados en los dos años anteriores, se aplicará una deducción adicional a la de los apartados anteriores por un importe igual al 15 por 100 de la diferencia entre las cantidades mencionadas.

4. Artikulu honetan aipatzen diren lanbide-heziketako jarduerak zergaldian egiteagatik sortutako gastuak aurreko bi urteetan egindakoak baino handiagoak badira, aurreko apartatuetako kenkariari kenkari gehigarri bat aplikatuko zaio, aipatu diren kopuruen arteko aldearen % 15eko zenbatekokoa.

5. A los efectos de lo previsto en los apartados anteriores, se considerará formación profesional el conjunto de acciones formativas desarrolladas por una empresa, directamente o a través de terceros, dirigido a la actualización, capacitación o reciclaje de su personal y exigido por el desarrollo de sus actividades o por las características de los puestos de trabajo.

5. Aurreko apartatuetan ezarritakoaren ondorioetarako, lanbide-heziketa honako hau da: enpresa batek zuzenean edo hirugarren batzuen bidez bere langileak eguneratzeko, gaitzeko edo birziklatzeko egiten dituen prestakuntza-ekintzen multzoa, jarduerak garatzeko edo lanpostuen ezaugarriak kontuan hartuta eskatzen dena.

En ningún caso se entenderán como gastos de formación profesional los que, de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, tengan la consideración de rendimientos del trabajo personal.

Inola ere ez dira lanbide-heziketako gastutzat hartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera norberaren lanaren etekintzat hartzen direnak.

6. Asimismo a los efectos de lo previsto en el apartado 2 de este artículo, se entenderá por economía plateada el conjunto de las oportunidades derivadas del impacto económico y social de las actividades realizadas y demandadas por el sector de las personas mayores.

6. Halaber, artikulu honen 2. apartuan ezarritakoaren ondorioetarako, zilarrezko ekonomiatzat hartuko da adinekoen sektoreak egindako eta eskatutako jardueren eragin ekonomiko eta sozialetik eratorritako aukeren multzoa.

En particular, se considerarán acciones de formación profesional en el ámbito de la economía plateada, siempre que se encuentren vinculadas con el mismo, las actividades de capacitación especializada y formación vinculadas con los siguientes campos:

Bereziki, zilarrezko ekonomiaren eremuko lanbide-heziketako ekintzatzat hartuko dira eremu horrekin loturik dauden trebakuntza espezializatuko eta prestakuntzako jarduerak, honako arlo hauetakoak:

a) Soluciones tecnológicas y digitales que ayuden a transformar y conectar los sistemas de salud y social, la ingeniería biomédica y las tecnologías médicas.

a) Osasun- eta gizarte-sistemak, ingeniaritza biomedikoa eta teknologia medikoak eraldatu eta konektatzen laguntzen duten soluzio teknologikoak eta digitalak.

b) Desarrollo de telemedicina y teleasistencia.

b) Telemedikuntzaren eta telelaguntzaren garapena.

A los mismos efectos, se entenderá por economía del cuidado el conjunto de actividades y relaciones que conlleva atender las necesidades físicas, psicológicas y emocionales de adultos y niños, mayores y jóvenes, personas frágiles y personas sanas. Reglamentariamente se concretarán los campos en los que las actividades de formación en el ámbito de la economía del cuidado darán derecho a la aplicación de esta deducción.

Ondorio berberetarako, zainketen ekonomia honela ulertzen da: heldu zein ume, adineko zein gazte, pertsona ahul zein osasuntsu, horien guztien beharrizan fisiko, psikologiko eta emozionalei erantzuteak dakartzan jardueren eta harremanen multzoa. Erregelamendu bidez zehaztuko da zaintzaren ekonomiaren arloko prestakuntza-jarduerek zein esparrutan emango duten kenkari hori aplikatzeko eskubidea.

7. Reglamentariamente se establecerán los requisitos que deben cumplir las acciones formativas que darán derecho a aplicar la deducción establecida en este artículo, así como los requisitos y condiciones para su aplicación."

7. Erregelamendu bidez ezarriko dira artikulu honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea emango duten prestakuntza-ekintzek bete beharreko baldintzak, bai eta hura aplikatzeko betekizunak eta baldintzak ere."

Quince. Se da nueva redacción al apartado 7 del artículo 66 quinquies, que queda redactado en los siguientes términos:

Hamabost. Berridazten da 66 quinquies artikuluaren 7. apartatua; honela geratzen da idatzita:

"7. Para que el contribuyente que participa en la financiación pueda aplicar lo previsto en este artículo, será necesario que los fondos que aporte sean utilizados para financiar los costes de la obra, del espectáculo o de la edición del libro en los que incurran los contribuyentes a los que se refieren los apartados Uno, Dos y Tres del artículo anterior durante el mismo ejercicio, aunque hayan incurrido en ellos antes de recibir dichos fondos, o en los siguientes pudiendo aportarse los fondos dentro del propio plazo para la formalización del contrato de financiación, que se establecerá reglamentariamente."

"7. Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ekartzen dituen funtsak nahitaez erabili beharko dira obra, ikuskizuna edo liburuaren argitalpena dela-eta zergadunek dituzten kostuak finantzatzeko. Kostuok aurreko artikuluaren Bat, Bi eta Hiru apartatuetan aipatutakoak izan behar dute eta ekitaldi horretakoak bertakoak izan behar dute —nahiz eta funtsak jaso baino lehenagokoak izan—, edo hurrengo ekitaldietakoak; funtsen ekarpena, bestalde, finantzaketa-kontratua formalizatzeko epearen barruan gauzatu ahal izango da eta erregelamendu bidez ezarriko da."

Dieciseis Se da nueva redacción al apartado 5 del artículo 89, que queda redactado en los siguientes términos:

"5. En los supuestos de entidades que hubieran practicado la corrección en materia de aplicación del resultado prevista en el artículo 51 de esta Norma Foral con anterioridad a su integración en el grupo fiscal, que deban incrementar su base imponible en períodos impositivos en los que ya formen parte del grupo al amparo de lo previsto en el apartado 3 del artículo 51, las cantidades correspondientes incrementarán la base imponible del grupo fiscal.

Asimismo, en el caso de entidades que hubieran dotado la reserva correspondiente a la corrección en materia de aplicación del resultado prevista en el artículo 51 de esta Norma Foral con anterioridad a su integración en el grupo fiscal, y que tuvieran cantidades pendientes de deducir en los términos establecidos en el apartado 4 del artículo 51, el grupo fiscal podrá deducir esas cantidades de su base imponible con el límite de la base imponible positiva individual que obtenga la entidad en el periodo impositivo, teniendo en cuenta las eliminaciones e incorporaciones que correspondan a dicha entidad, de acuerdo con lo establecido en los artículos 90 y 91 deesta Norma Foral."

Hamasei. Berridazten da 89. artikuluaren 5. apartatua; honela gertatzen da idatzita:

"5. Entitate batzuek talde fiskal batean integratu aurretik egin badute foru arau honetako 51. artikuluan emaitzen aplikazioa dela-eta ezartzen den zuzenketa eta, ondoren, entitate horiek, taldearen parte diren zergaldietan, 51. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoari jarraituz, beren zerga-oinarria gehitu behar badute, zenbateko horiek guztiek gehitu egingo dute talde fiskalaren zerga-oinarria.

Halaber, entitate batzuek talde fiskal batean integratu aurretik zuzkitu badute foru-arau honetako 51. artikuluan aipatutako emaitzen aplikazioa dela-eta ezartzen den zuzenketari dagokion erreserba eta, gainera, kendu ez diren zenbatekoak badituzte —51. artikuluko 4. apartatuan ezarritako baldintzetan—, bada, orduan, talde fiskalak zerga-oinarritik kendu ahal izango ditu zenbateko horiek, entitateak zergaldian lortzen duen zerga-oinarri positibo indibidualaren mugarekin; horretarako, entitate horri dagozkion ezabatzeak eta txertatzeak kontuan hartuko dira, foru-arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren arabera."

Diecisiete. Se modifica el apartado 3 del artículo 115, que queda redactado en los siguientes términos:

"3. La aplicación del régimen fiscal especial regulado en este Capítulo requerirá, para las entidades a que se refiere el apartado 2 de este artículo, el cumplimento de los siguientes requisitos:

a) El 90 por 100 de las viviendas destinadas al arrendamiento deberá tener una superficie construida no superior a 110 metros cuadrados.

b) El número de viviendas, propiedad de la entidad, arrendadas u ofrecidas en arrendamiento deberá ser en todo momento igual o superior a 10.

c) El precio del alquiler deberá estar limitado a los importes que se correspondan con los índices de referencia o precios de intermediación pública.

El arrendamiento de vivienda podrá incluir un máximo de dos plazas de garaje y los anexos situados en el mismo edificio, excluidos los locales de negocio, siempre que unos y otros se arrienden conjuntamente con la vivienda.

Para el cómputo del número de viviendas no se tendrán en cuenta aquellas arrendadas a personas o entidades vinculadas según lo establecido en el artículo 42 de esta Norma Foral."

Hamazazpi. Aldatzen da 115. artikuluaren 3. apartatua; honela geratzen da idatzita:

"3. Artikulu honetako 2. apartatuan aipatutako entitateek kapitulu honetako zerga-araubide berezia aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da honako baldintza hauek betetzea:

a) Errentatzeko diren etxebizitzen % 90ek ezin dute eduki 110 metro koadro baino gehiago eraikita.

b) Entitateak gutxienez bere jabetzako 10 etxebizitza eduki behar ditu, beti, errentatuta edo errentatzeko.

c) Alokairu-errentak erreferentzia-indizeei edo bitartekaritza publikoko prezioei dagozkien zenbatekoetara mugatuta egon beharko du

Etxebizitzaren errentamenduan gehienez ere eraikin bereko bi garaje-plaza eta eranskinak sar daitezke, negozio-lokalak salbu, baldin eta garaje-plazak eta eranskinak etxebizitzarekin batera errentatzen badira.

Etxebizitzen kopurua konputatzean ez dira kontuan hartuko pertsona edo entitate lotuei errentan emandakoak (foru arau honetako 42. artikuluan ezartzen da nor diren pertsona edo entitate lotuak)."

Dieciocho. Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 1 del artículo 127, que queda redactado en los siguientes términos:

"1. Los contribuyentes, al tiempo de presentar su declaración, deberán determinar la deuda correspondiente e ingresarla en el lugar y en la forma determinados por la persona titular del departamento de Hacienda y Finanzas.

En casos excepcionales podrá ser admitido el pago en especie de la deuda tributaria, según lo dispuesto en el artículo 58.2 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y en su normativa de desarrollo."

Hamazortzi. Berridazten da 127. artikuluaren 1. apartatuko lehen paragrafoa; honela geratzen da idatzita:

"1. Zergadunek, aitorpena aurkeztearekin batera, zehaztu beharko dute zein den euren zorra, eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak zehazten dituen lekuan eta eran ordaindu.

Salbuespenezko kasuetan, zerga-zorra gauzatan ordaintzea onartu ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 58.2 artikuluan eta foru-arau hori garatzeko araudian xedatutakoaren arabera."

Diecinueve. Se modifican las letras q) y s) del apartado 1 del artículo 128, que quedan redactadas en los siguientes términos:

"q) La compensación de bases imponibles negativas de ejercicios anteriores regulada en el artículo 55, incluyendo la opción por el cálculo del límite de compensación correspondiente sobre el sumatorio de las bases imponibles generadas durante un bloque de 5 periodos impositivos consecutivos."

Hemeretzi. Aldatzen dira 128. artikuluaren 1. apartatuko q) eta s) letrak; honela geratzen dira idatzita:

"q) Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa, 55. artikuluan arautua, ondoz ondoko 5 zergaldietako bloke batean sortu diren zerga-oinarrien baturaren gainean dagokion konpentsazio-muga kalkulatzeko aukera barne."

"s) Las deducciones reguladas en el Capítulo III del Título V, incluyendo la opción por el cálculo del límite de deducción correspondiente sobre el sumatorio de la cuota líquida correspondiente a un bloque de 5 periodos impositivos consecutivos."

Veinte. Se añade un nuevo apartado 5 al artículo 133, y los actuales apartados 5 y 6 pasan a ser los apartados 6 y 7, respectivamente, con el siguiente contenido:

"5. No se incurrirá en responsabilidad por las infracciones señaladas en el apartado 2 de este artículo, cuando deba imponerse al mismo sujeto infractor una sanción por alguna de las infracciones previstas en los artículos 196 a 202 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia en relación con las operaciones afectadas por dicho incumplimiento."

Veintiuno. Se da nueva redacción a la disposición adicional décima, que queda redactada en los siguientes términos:

"Disposición Adicional Décima. ***Consideración de explotación económica del arrendamiento y compraventa de inmuebles.***

A los efectos de lo dispuesto en esta Norma Foral, se entenderá que el arrendamiento y compraventa de inmuebles tiene la consideración de explotación económica cuando concurran las circunstancias previstas en el apartado 3 del artículo 24 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, excepto en los supuestos en los que esta Norma Foral exige unos requisitos diferentes a tal efecto.

A efectos del requisito de contar, al menos, una persona empleada con contrato laboral, a jornada completa, y con dedicación exclusiva a esa actividad se tendrá en cuenta el personal que se encuentre empleado en el conjunto de entidades vinculadas con el contribuyente en los términos establecidos en el artículo 42 de esta Norma Foral y que no tengan la consideración de sociedades patrimoniales."

Artículo 3. ***Modificación de la Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio.***

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio:

Uno. Se da nueva redacción a la letra d) del apartado Dos del artículo 6, que queda redactada en los siguientes términos.

"d) Que el contribuyente ejerza efectivamente funciones de dirección en la entidad, percibiendo por ello una remuneración que represente más del 50 por 100 de la totalidad de los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal. La exención a que se refiere este apartado Dos se mantendrá en todo caso para el contribuyente durante el plazo de los dos años desde el momento de la transmisión a que se refieren los apartados Segundo, y Cuarto, respectivamente, de las letras c) y d) del artículo 41.2 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cuando se continue cumpliendo este requisito durante dicho periodo."

Dos. Se da nueva redacción al apartado Cinco del artículo 6, que queda redactado en los siguientes términos:

"Cinco. Los requisitos y condiciones para que resulte de aplicación la exención a que se refiere este artículo habrán de referirse al momento en el que se produzca el devengo de este impuesto."

Tres. Se da nueva redacción a la letra a) y a los párrafos primero y segundo párrafo de la letra b) del artículo 6. Seis, que quedan redactados en los siguientes términos:

"s) V. tituluko III. kapituluan araututako kenkariak, ondoz ondoko 5 zergaldietako bloke bati dagokion kuota likidoaren baturaren gainean dagokion kenkari-muga kalkulatzeko aukera barne."

Hogei. 5. apartatu berri bat gehitzen zaio 133. artikuluari, eta oraingo 5. eta 6. apartatuak aurrerantzean 6. eta 7. apartatuak izango dira, hurrenez hurren; hona hemen haren edukia:

"5. Ez da izango artikulu honen 2. apartatuan adierazitako arau-hausteen ziozko erantzukizunik, baldin eta arau-hausle berari Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 196. artikulutik 202. artikulura bitartean adierazitako arau-hausteren bategatik zehazpena ezarri behar bazaio ez-betetze horrek ukitutako eragiketei dagokienez."

Hogeita bat. Berridazten da hamargarren xedapen gehigarria; honela geratzen da idatzita:

"Hamargarren xedapen gehigarria. ***Higiezinen errentamendua eta salerosketa ustiapen ekonomikotzat hartzea.***

Foru-arau honetan xedatutakoari dagokionez, ondasun higiezinen errentamendua eta salerosketa ustiapen ekonomikotzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 24.3 artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira, foru-arau honetan horretarako beste baldintza batzuk ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Jarduera horretan gutxienez lan-kontratuko enplegatu bat (lanaldi osoan eta dedikazio esklusiboarekin) edukitzeko betebeharrari dagokionez, kontuan hartuko dira foru-arau honetako 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunari lotuta dauden eta ondare-sozietate ez diren entitate guztietan enplegatuta daudenak."

